



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

LANKI KOADERNOA 16

KOOPERATIBISMOAREN SUSTRAIAK II:

SOZIALISTA ASOZIAZIONISTAK

IGOR ORTEGA SUNSUNDEGI

Egilea:
IGOR ORTEGA SUNSUNDEGI
Mondragon Unibertsitateko
LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiko ikertzailea

Lehen edizioa: 2022ko urria
Lege gordailua: 01098-2022
ISBN: 978-84-09-44583-7
Diseinua: Azk Taldea
Inprimatzailea: Gertu Koop. Elk.



Aitorpena – Ez komertziala – Berdin partekatu (by-nc-sa): Ez da onartzen jatorrizko obraren erabilera komertzialik, ezta eratorritako obra ere. Eratorritako obraren banaketa jatorrizko obra arautzen duen lizentzia berberarekin egin behar da.


**Mondragon
Unibertsitatea**
Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea
LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**


LAN ETA JUSTIZIA
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y JUSTICIA

| | |
|-----|--|
| 8-9 | 1. SAR-HITZA |
| 10 | 2. LEHEN SOZIALISTEN PENTSAMENDUA |
| 14 | 2.1. Kolektibistak eta asoziazionistak |
| 20 | 3. OWEN ETA OWENISTAK |
| 22 | 3.1. Robert Owen enpresaburua |
| 25 | 3.2. Villages of Cooperation |
| 29 | 3.3. Britainia Handiko langile-mugimenduaren buruzagi |
| 33 | 3.4. Owen eta owenisten ekarpena eredu kooperatiboaren sorrerari |
| 36 | 4. WILLIAM KING DOKTOREA |
| 41 | 4.1. King doktoreak eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena |
| 46 | 5. FOURIER ETA FOURIERISTAK |
| 50 | 5.1. Falansterioen sistema |
| 52 | 5.2. Lan erakargarria |
| 55 | 5.3. Fourierrek eta fourieristek eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena |
| 60 | 6. PHILIPPE BUCHEZ |
| 66 | 6.1. Buchezek eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena |
| 70 | 7. LOUIS BLANC |
| 78 | 7.1. Louis Blancen eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena |
| 82 | 8. LABURBILDUZ |
| 90 | 9. BIBLIOGRAFIA |



1

SAR-HITZA



1. SAR-HITZA

Esku artean duzun liburuxka honekin, kooperatibismoaren sustraietan sarkontzeko aukera duzu. Aurrekoari segida ematera datorren argitalpena da. Orduan, XVIII. eta XIX. mendeetan, industria-kapitalismoari aurre eginez, langile eta herri-sektoreen inguruneetan ernaldutako ziren antolaketa-praktikak eta elkartegintza dinamikak aztertu bagenituen, oraingoan sozialista asoziazionista deiturikoen pentsamendua eta ekinbideak izango ditugu aztergai. Izan ere, bi horiek dira, Rochdaleko kooperatiba-esperientziaren mugarriaren aurretik, kooperatibismoaren sorreraren iturri nagusiak.

Sozialista asoziazionistak idazle, pentsalari eta ekintzaile multzo heterogeneoa dira. Britainia Handikoak eta Frantziakoak gehienak, elkarren artean harreman esturik garatu ez arren, eta, hainbatetan elkarren arteko lehiari ibili arren, oinarri komun bat partekatzen duten taldea dira: asoziazionismoa edo elkartegintza izan zuten ardatz, liberalismoaren erregimen indibidualista eta lehiakorra gainditu eta elkartasunean oinarrituriko gizar-te-eredua eraikitzeko. Bide horretan, elkarkidetzan oinarrituriko elkarrekin sustatu zituzten. Batzuetan funtzionamendu-arau eta antolaketa-eredu berritzaileak asmatuz, eta, besteetan, elkartegintza-eredu berri horien esperientziazio praktikak garatuz. Ez zuten *kooperatiba* hitza erabiltzen –berriagoa baita–, baina zalantzarik ez dago sustatu zituzten kontsumo- edo ekoizpen-elkarrekin egungo kooperatiben aurrekari zuzenak direla. Sozialista asoziazionista horien proposamenetan, hortaz, kooperatibismoaren oinarri ideologiko hainbaten iturriak daude. Gerora Rochdaleko kooperatiba-esperientziak eredu bilakatuko dituen printzipio eta arau asko ere garai honetakoak dira. Horiek guztiak arakatuko ditugu liburuxka honetan.

Idazki honetan, hortaz, sozialista asoziazionistek eredu kooperatiboaren eraikuntzan egin zuten ekarpena, teorikoa eta praktikoa, aztertuko dugu. Britainia Handiko Robert Owen eta William King doktorea eta Frantziako Charles Fourier, Philippe Buchez eta Louis Blanc autoreak aztertuko ditugu. Badaezpada, argitu dezagun eredu kooperatiboaren sorkuntzan duten eragina dela gure interesgunea, eta, horietako hainbaten sorkuntza eta emaria zabalagoa den arren, kooperatibismoarekin loturan aztertuko dugula haien pentsamendua lan honetan.

Liburuxka hau, aurrekoa bezala, dibulgazio asmoz egina dago. Oraingo honetan ere, irakurketa errazteko, aipamen akademikoen zamaz arindu nahi izan dugu idazkia. Iturri akademikoak, dena den, bibliografia atalean aipatzen dira; eta irakurketa zorrotzagoaren gogoz dagoenak eskura du sarean lan honen oinarrian dagoen tesi-ikerketak¹.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzari eskertu nahi diot lan hau argitaratzeko eskainitako laguntza. Kooperatibagintza-ren balioak eta oinarri ideologikoak ezagutarazten lagundu dezala.

1. Ortega, I. (2021). *La contribución de los fundadores del cooperativismo de Mondragón al pensamiento cooperativo*
<http://ebiltegia.mondragon.edu:8080/xmlui/handle/20.500.11984/5371>

The background is a solid light pink color. Overlaid on this are numerous thin, white, curved lines that sweep across the page from the top left towards the bottom right, creating a sense of movement and depth.

2 LEHEN SOZIALISTEN PENTSAMENDUA



2.1. Kolektibistak eta asoziazionistak

2. LEHEN SOZIALISTEN PENTSAMENDUA

XIX. mendearen lehen hamarkadetan, industria berria garatzen hasi zen eskualdeetan, jada nabariak ziren industria-kapitalismoak eta liberalismoak zekartzaten eraldaketa izugarriak. Langileen eta herri-sektoreen bizi-baldintza larriek hainbat intelektual eta erreformatzaile sozialen erreakzioa ekarri zuten. Haiek, industria-kapitalismoarekin bat hedatzen zihoan miseria-egoeraz ohartarazi eta, gizartearen antolaketa irizpide gizatiarragoz egiteko proposamen ezberdinak aurkeztu hasi ziren. Indibidualismoaren eta lehian oinarritzen zen sistema ekonomikoaren etsai, auzitan jartzen zuten ekonomiaren bilakaera natural batek, berez, ongizate orokorra ekarriko lukeenaren ideia. XIX. mendea, beraz, liberalismoaren dogmak zalantzan jarri eta sistema sozial berriak proposatzen zituzten doktrina berrien agerpenaren lekuko izan zen. Doktrina berri horiek, sarri elkarren lehian aritu arren, oro har, gizarte-inguruneak giza harremanen nolakotasuna baldintzatzen zuela defendatu eta, elkarkidetzan, jabetza kolektiboan eta borondatezko lankidetzan oinarrituriko gizarte-formulak proposatzen zituzten.

Doktrina horien artean, aitzindari sozialisten proposamenak nabarmentzen ziren. 1830eko hamarkada inguruan, sozialista izendatzen hasi ziren gizartearen antolaketan norbanakoaren interesaren nagusitasuna salatu eta dimentsio soziala nabarmentzen zuten doktrinak. Britainia Handian Owenen aldekoak eta Frantzia Saint-Simonen edo Fourierren jarraitzaileak izan ziren lehenak sozialista izenez ezagun egiten. Elkarren artean ezberdintasunak eta ñabardurak egon arren, egile horien doktrinek hainbat oinarri partekatzen zituzten.

Doktrina liberalekin bat zetozen zoriontasuna eta ongizate orokorraren oinarriak pertsonen ahalmenen garapenik zabalena ahalbidetuko zuen gizarte-sistema baten eskutik etorriko zirela baieztatzerakoan. Hori lortzeko bidean, ordea, aurkako ikuspegia zuten liberalek eta sozialistek. Liberalismoak aldarrikatzen zuen lehia askean norbanako bakoitzak bere interesak bilatuz bermatzen zela hori; sozialistek, aldiz, gizarte-antolamenduaren dimentsioa aintzat hartzea eskatzen zuten. Sozialisten kontzepzio desberdinen arabera, antolamendu hori estatuaren planifikazio-ahalmena baliatuz egitea proposatu zuten batzuek, eta funtzio horiek izaera deszentralizatuko gizarte-egiturek egitea eskatzen zuten besteek.

Norabide horretan, liberalismoaren *laissez-faire* printzipioaren aurka, afera sozialari konponbidea emateko, bizi-baliabideen lehian baino gehiago lankidetzan oinarrituriko gizarte-antolakundeen eraketa defendatzen zuten sozialista horiek. Gizartea sakon berregituratzeko bide hori arrazionalki diseinaturiko plangintzen edo egitasmoen bitartez gauzatzea, hori zen doktrina liberalekiko aldea nabarmentzen zuen alderdi bereizgarriena.

Bestalde, lehen sozialista haiek instituzio politikoekiko nola-halako mesfidantza partekatzen zuten. Gizarte-afereen kudeaketak soluzio hobea zuen «ekoizleen» beren ardurapean, politikarien eta parlamentarien eskuetan baino. Ekonomia eta gizarte-antolaketa egoki batek gobernu tradizionalen premia desagerraraziko zuela pentsatzen zuten, eta, bide batez, borroka dinastikoen eta inperialisten mundu zaharra herrien arteko lankidetzazko ordena baketsu batek ordezkatzuko zuela.

Langileak kapitalisten aldetiko esplotazio baten biktimatzat hartzen zituzten arren, eta sistemak desberdintasunak areagotzen zituela ulertuta ere, lehen sozialista haien proposamenak ez ziren klase-borrokaren ikuspegietatik eraiki. Langileak eta kapitalistak ez zituzten irudikatzen interes antagonikoak zituzten klase etsai gisa. Haiena ez zen enpresa-jabeak deuseztatzea bideratutako langileen masa-borrokaren deia. Jabetza-sistemaren bidegabekeriak oligarken pribilegioen sistemaren ondorioekin lotzen zituzten haietako hainbatek. Arrazoiari men eginez, langileek zein kapitalistek sistema ekonomiko eta sozial berriaren onurak onartuko zituztela sinesten zuten beste sozialista askok.

Jabetzaren izaeraren gaineko ikuspegietan islatzen zen hori guztia. Erreformista haien iritziz, errentaren iturri legitimoa pertsonen ahalmenen, ahaleginen eta beharrezko konbinaziotik zetorren. Horrek, maila handi batean, jabetza indibiduala arbuiatzera eramaten zituen. Baina ez zuten jabetza erabat ezeztatzen. Errenta- eta botere-iturri zen heinean, salatu egiten zuten jabetzaren instituzioa.

Dena den, kooperatibismoaren sustraiak arakatzeko unean, lehen sozialista haien artean zeuden ikuspegi ezberdinak bereizten ere ikasi behar da. Gide eta Rist ditugu bidelagun, besteak beste, zeregin horretan. Izan ere,

2. LEHEN SOZIALISTEN PENTSAMENDUA

bi autore horiek *Doktrina ekonomikoen gaineko historia* liburuan ikuspegi kolektibistak eta asoziazionistak bereizten zituzten sozialista talde horren baitan. Azken horien artean agertzen dira kooperatibismoaren aitzindariak.

2.1. KOLEKTIBISTAK ETA ASOZIAZIONISTAK

Lehen sozialista horien artean, ikuspegi kolektibistak Saint-Simonen planteamenduekin loturik agertzen dira. Claude-Henri de Rouvroy, edo Saint-Simongo kondea (1760-1825), klase txiroen existentzia moralaz eta materialaz kezkatuak agertzen den pentsalari sozial horietakoa zen. Zientziaren eta teknikaren etengabeko aurrerapenak eskaintzen zituen aukerez sinetsirik, ernaltzen ari zen industria-erregimen berriaren zale sutsua zen, eta horren oinarrian eraiki zuen bere gizarte-egitasmoaren proposamena.

Saint-Simonek klase industrialaren edo produktiboaren planifikazio-ahalmenean oinarri hartuko zuen gizarte-antolamendu ekonomiko eta sozial berri bat aldarrikatzen zuen. Saint-Simonen proposamena klase produktiboaren eta klase nagia artean egiten zuen bereizketan oinarritzen zen. Klase nagia (noblezia, militarrek, kleroa) ekoizleen lanak sortzen dituen errenten kontura bizi diren pribilegiadunek osatzen dute. Klase produktiboa, aldiz, ekoizleek osatzen zuten, izan enpresariak ala langileak. Saint-Simonek klase ekoizlearen jardun ekonomikoa –jardunbidea edozein zelarik ere berez baliotsua zena– eta lanik gabeko jabetzaren nagikeria aurkakotzen zituen. Horrek, jabetza pribatua instituzio gisa zalantzan jartzen ez bazuen ere, jabetza horren gauzatze-ereduak kritikatzera eraman zuen.

Industria, ekoizpen-lanaren adiera zabalean ulertuta, aberastasun- eta oparotasun-iturri bakarra zela sinetsita, estatu-egituraren birformulazioa defendatzen zuen. Gobernuak bere gain hartu behar zuen ekonomia- eta

gizarte-gaien zuzendaritza, zientzia positiboen irizpideen baitan gidarritza-lanak egiteko. Bere ereduan, gobernuak, politika-ikuspegiak albo batera utzi eta, ekoizpenaren zientzia-irizpideak jarraituz gidatu beharko luke bere jarduera, horrela ziurtatzen baita herrikide guztien bizimodua hobetzeko beharrezkoak diren eginbeharrak era osagarrian garatzen direla. Industriaren arauak gizartean eta ekonomian nagusitu behar zirenez, politika- eta lege-ardurak industria-teknikariei eta zientzialariei zegozkiela uste zuen, eta ez, ohikoa zen bezala, apaizei, militarrei, funtzionarioei edo nobleei. Gizarte-funtzio guztiak ezagutza tekniko aurreratuena duten eta interes orokorraren zaintzaren arabera jarduteko joera duten pertsonen atxikiko balitzaizkie, gobernatzeko ekintza –ordena mantentzea helburu duten funtzioei dagokienez– izugarri murriztuko litzateke, eta, ondorioz, hiritarrak gizarte-baldintzek ahalbideraturiko askatasun- eta oparotasun-maila gorenean biziko lirateke. Estatua, horrela, pertsonak gobernatzetik, afera publikoen «administrazio»-ekintza soilik egitera igaroko litzateke. Saint-Simonen ikuspegian, soilik zientzian eta industrian oinarrituriko gizarte berri batek ziurta dezake «industria-berdintasuna»: norbanakoak gizartetik jasotzen dituen onurak egindako ekarpenaren proportzioaren arabera izatea; hau da, gizarte-onuraren eraikuntzan jarritako ahalmenen arabera saritua izatea.

Baina Saint-Simonen pentsamenduaren eragina ezin da azaldu bere dizipuluen ekarpena aintzat hartu gabe. Izan ere, Gidek eta Ristek adierazten dutenez, haren lanak ez ziren bere garaian oso irakurriak izan. Bere eragin nagusia ekintza pertsonalaren ondorioa da, talentu eta eragin handiko pertsonak bere inguruan biltzea lortu baitzuen. Haien arduratu ziren, Saint-Simon hil ostean, haren ideiak zabaltzeaz. Saint-Simonen ideien hedapenak, hortaz, asko zor dio bere jarraitzaileen lanari. *Le Producteur* aldizkaria sortu zuten haren doktrina zabaltzeko. Zabaldu ahala, ordea, Saint-Simonen pentsamenduaren atalak garatu eta berrinterpretatu zituzten jarraitzaileek. Haien izan ziren Saint-Simonen doktrina sozialismoaren ikuspegietara era argiagoan hurbildu zutenak. Garatu zituzten ideian artean, jabetzari eta estatuari buruzkoak dira guretzat azpimarragarrienak.

Jabetzaren gaineko kritikak bi zutabe ditu. Batetik, jabetzaren ondorioz ekoizpen-langileak bere lanaren emaitzaren zati bat jabea saritzeko erabili

2. LEHEN SOZIALISTEN PENTSAMENDUA

beharra du. Hori, saint-simonistentzat gizakiak gizakia esplotatzeko bidea baino ez da, jabetzaren funtsa baita lanik egin beharrik gabe produktuaren emaitza bat jasotzeko eskubidea. Esplotazio hori, Saint-Simonen jarraitzaileen ikuspegian, ez da soilik langileen gainekoa; jabeari errenta kopuru bat ordaintzera behartuak dauden guztiak barnebiltzen ditu, industria-buruak barne, funtsen jabeei interes bat ordaintzera behartuak dauden heinean. Izan ere, eta aurrerago aztertuko ditugun sozialista asoziazionista batzuen aldean, saint-simonisten ustean langileen lanak bakarrik ez du ekoiztako produktuaren balio guztia sortzen. Ikuspegi horren arabera, enpresari bitartekariaren irabazia ez da langileen kontura egindakoa, baizik eta zuzendaritza-lanari dagokion ordainsaria da. Haiek lur-jabeak zituzten jopuntuan, nagusiki; ez zuten, ondorioz, kapitalisten errenta-iturriak desagerrarazteko asmorik, ordainsaria jasotzeko kapitalak lanak bezainbesteko eskubidea zuela argudiatuz.

Horrez gain, egituraturik zegoen eran, jabetzaren instituzioak ez zion egoki erantzuten ekoizpenaren eraginkortasunaren erronkari. Kapitalaren jabetza herentziaz jasotzeak ez zuen ziurtatzen ekoizpena antolatzeko ardura dohain handienak zituztenen esku egoterik; aitzitik, herentziaren ondorioz, «funtzio guztien artean zailena» zena «jaiotze-zori»aren arabera erabakitzen zen. Hortik, egoera ekonomikoan eta sozialean nagusi zen desordena eta «anarkia ekonomikoa». Gidek eta Ristek argi ikusi zuten moduan, herentzia ezabatetik eta estatuaren rola birmoldatetik etorriko da saint-simonisten ustez konponbidea:

«Herentzia jasoko duen bakarria estatua izango da, eta, hark, lan-bitarteko guztien jabe izanik, interes sozialaren ikuspegitik etekinik handiena lortzeko irizpidez banatuko ditu horiek. Gobernua Banku Zentral nagusi gisa irudikatzen dute, kapital guztien gordailu, sukurtsal ugari antolatua, azken herria ere hornitzeko ardura duena, beharrezko baliabideak eskainiz eta pertsona egokienak hautatuz, lanari ekin diezaioten egindako lanaren araberrako ordainsariaren truke. 'Instituzio sozial' batek, hortaz, gizabanakoek horren gaizki egiten dituzten funtzio guztiak bereganatuko lituzke».

2.1. Kolektibistak eta asoziazionistak

Ez da harritzeko, beraz, hainbatek saint-simonisten sistema XIX. mendean zehar sortzen joango diren irudikapen kolektibista guztien prototipo bilakatu zela baieztatzea. Haiek izan ziren zuzendaritza ekonomiko zentralizatu baten premia aipatzen lehenak. Saint-Simonen jatorrizko eskeman, gainera, administrazio publikoaren zuzendaritza industriako enpresaburuaren ardurapean uzten zen, haiek baitziren lasaitasun orokorra eusteko, gobernuaren osasun ekonomikoa zaindu eta gastu publikoa mugatzeko, eta arbitrariotasuna ekiditeko interes handiena zutenak; eta, batez ere, beren enpresa partikularren arrakastaren bidez, gizarteko kide guztien artean administrazio-gaitasun handienak egiaztatu zituztenak enpresaburuak zirelako. Ikuspegi horiek oinarri hartuta, sozialismo aristokratiko baten traza hartu dio hainbatek saint-simonisten planteamenduari. Demokraziaren aurrean mesfidantzarako berezko joera zutela erakusten du Colek antzeko norabidean:

«Saint-Simonek behin eta berriz azpimarratzen zuen gizartea behartsuen ongizatea aintzat hartuz antolatu behar zela; baina ez zen fio «jendailaren gobernuaz», jakinduriaren ordezkari ezjakintasunaren gobernu baitakar horrek. (...) Behin eta berriz errepikatzen zuen langile behartsuen gidari naturalak enpresaburuburu handiak direla, bankariak bereziki, industria kredituz hornituz ekonomia planifikatzeko funtzioa berenganatzen baitute. Zalantzarik ez zuen enpresaburuburu handiek, gizarte berriaren agintari bilakaturik, pobreen tutore gisa jardungo zutela, erosteko ahalmena zabalduz, eta, horrela, ongizate-maila orokorra goratuz».

Sozialista asoziazionistek ñabardura garrantzitsuak egiten dituzte Saint-Simonen eta haren jarraitzaileen ikuspegiekiko. Asoziazionisten proposamenaren muinean ideia nagusi bat nabarmentzen da: elkartegintza askea, berez, gizarte-egoerari irtenbidea emateko aski dela, betiere, Gidek eta Ristek zehazten dutenez, elkartze-dinamika aurrez diseinaturiko plangintza baten arabera antolaturik baldin badago. Elkartegintza askearen ideia ardatz harturik, Saint-Simonen ikuspegi kolektibistarekiko aldeak esanguratsuak dira. Bat, oso garrantzitsua, ekimen indibidualak hartu beharreko

2. LEHEN SOZIALISTEN PENTSAMENDUA

lekuari dagokio. Izan ere, asoziazionisten artean badago norbanakoa talde autonomo txikien bidez zaintzeko ardura berezi bat, norbanakoa langile-masaren artean galduko den kezka izanda. Bestea, estatuaren rolaekin dago lotua, hauen ikuskera mesfidatiagoa baita harekiko. Bataren eta bestearen ondorioz, sozialista asoziazionisten gogoia gizarte-zelula txikien eraketan eta talde autonomo horien arteko federazio askean kokatzen da gehiago, eta behetik gorako eraldaketa-bideak lehenesten dituzte haiek.

Sozialista asoziazionistek lotura estuak dituzte eredu kooperatiboaren garapenarekin. Elkarkidetzaz askea komunitate kooperatiboetan gorpuztuko den ideia izango da, eta bide hori lehenetsiko dute indibidualismoa eta lehia-sistema gaindituko lituzkeen gizarte-eredu berri bat eraikitzeko. Bidean, baina, izaera teorikoa eta praktikoa duten proposamen ugari egingo dituzte, eta horietako asko kooperatibismoaren printzipioen, arauen eta formulazio ideologikoen oinarri bilakatuko dira.


Sozialista asoziazionisten ekarpenarekin, langileen eta herri-sektoreen bul-tzadaz berez loratzen ari zen kooperatiben mugimendua aro berri batean sartuko da. Paul Lambertek argi uzten duenez, sozialista asoziazionisten pentsamendutik elikatzen diren unean hasten dira kooperatiba izaerako elkarte horiek indarra hartzen. Pentsalari eta ekintzaile horiek eredu kooperatiboaren eraikuntzari zer-nolako ekarpena egin zioten aztertzen arituko gara hurrengo ataletan.

2.1. Kolektibistak eta asoziazionistak



3

OWEN ETA OWENISTAK

- 
- 3.1. Robert Owen enpresaburua
 - 3.2. Villages of Cooperation
 - 3.3. Britainia Handiko langile-mugimenduaren buruzagi
 - 3.4. Owen eta owenisten ekarpena eredu kooperatiboaren sorrerari

3. OWEN ETA OWENISTAK

Robert Owen (1771-1858) industria-kapitalismoaren hastapen-aro honek ernalduriko figura original eta berezi horietakoa da; hasiera batean, behintzat, erraz josten ez diren rol zeharo ezberdinak uztartu zituen: garaiko ehungintza-industriako enpresa handienetako baten patroia eta kudeatzaile izateak, 1830eko hamarkadako Britainia Handiko mugimendu sindikal eta kooperatiboaren buruzagi eta inspiratzaile nabarmen izateraino.

Owen Newtown herrian, Gales erdialdean, jaio zen artisau-familia xume batean. Bederatzi urterekin apendiz hasi, eta 14 urterekin merkatari baten etxean enplegatu zen. Gazte, 19 urterekin, anaiak utzitako 100 liberako kapitalarekin abiatuta, 500 langileko kotoia iruteko makineria-fabrika bateko patroia txikia bilakatu zen. Berehala, maila desberdinak igaro eta, 30 urte egin aurretik, New Lanark-en (Eskozia) iruteko fabrika handi baten jabea eta zuzendari izatera iritsi zen, eta dirutza handia metatu zuen bertan. Eredu kooperatiboaren eraketari dagokionez, Owenen ibilbidea hiru aro nagusitan banatu ohi da: enpresa-jabe filantropoa lehenik, komunitate kooperatiboaren eratzalea ondoren, eta langile-mugimendu britainiarren buruzagia, azkenik.

3.1. ROBERT OWEN ENPRESABURUA

Lehenengo aroa New Lanark lantegiko zuzendari-ardurarekin lotzen da. 2.500 langile inguruko enpresa zen New Lanark; handia, hortaz, industria-kapitalismoaren hastapen fase honetarako. Mladenatz-ek aipatzen duenez, Owen New Lanarken bilakatu zen «langilegoaren miseria-egoaren interprete» eta, bertako kudeatzaile zelarik, abiatu zituen erreforma sozialerako lehen egitasmoak. Sasoi hartan hasi zen Owen ezagun egiten. Hobekuntza tekniko berritzaileak martxan jartzen enpresari arrakastatsua zen Owen; baina ospe publikoa, nagusiki, New Lanarkeko langileen egoera materiala eta kulturala hobetzeko asmoz ezarri zituen ekimen entzute-tsuen bidez bereganatu zuen. New Lanarken ezarri zituen erreformek

3.1. Robert Owen enpresaburua

idea nagusi bat zuten gidari: pertsonen eta komunitateen izaera ingurunearen gizarte-baldintzen arabera dela. Owenek Industria Iraultzak eskaintzen zituen baliabide teknikoak miresten zituen, eta, enpresari arduraren, abilezia berezia erakutsi zuen horiek menderatzen eta lantegietan txertatzen. Baina, era berean, ondorio sozialez oharturik, kritiko agertzen zen prozesuaren garapenarekin. Lehiaren sistema zen, haren ustez, ondorearen arrazoi nagusia. Bai herri-sektoreen miseriaren erantzulea, bai aberatsek eta pobreek erakusten zuten jarrera antisozialena ere. Ildo horretan, zabaltzen ari zen industria-sistemari giza izaera okerrak sustatzea egotzen zion, lehia eta handinahikeria sustatzen zituelako batetik, eta langile-familiak bizi-baldintza material eskasetan eta ingurune moral degradatuetan murgiltzen zituelako, bestetik.

Gauzak horrela, Owenek bi eraldaketa handien premia aldarrikatzen zuen. Alde batetik, nor bere izaeraren arduradun eta erantzule bakarra denaren uste faltsuarekin amaitu beharra zegoela zioen. Uste horren arabera, pertsona bakoitza bere sentimendu, ohitura eta ahaleginen erantzule nagusia izanik, ulergarriak eta zilegiak ziren batzuen sariak eta besteen eskasiak. Horren bidez, aberatsenek beren burua zuritu baino ez zuten egiten, txiroen pobrezia beren ohitura txarren eta ezintasunen ardurari egotziz, gizarte-baldintza desorekatu eta uste okerren gainean eraikitako sistemaren oinarriak aintzat hartu gabe. Doktrina faltsuen pregoilari izateagatik, Robert Owen etsaitu egingo zen liberalismo ekonomikoaren eta Elizaren ordezkariekin. Beste alde batetik, mugarik gabeko lehiaren sistema baztertzeko premia defendatzen zuen, enpresa-ugazaba bakoitza giza jokabide ankerretara behartzen zuelako, lehiakideek hala bultzatuta, eta enpresa-porrota saiheste aldera, beste aterabiderik ez zuela aitzakia jarrita.

Robert Owenek, arrazoiaren ahalmenean sinesten zuen ekintza-gizona izanik, kudeaketa eredugarri baten bidez, erakutsi nahi zuen bateagarriak zirela langileen hobekuntza materiala eta morala, eta enpresaren produktibitatearen hazkuntza. Horrela, Owen patronal izaerako gizarte-ekintzen eta lan-legediaren aitzindari jo izan da. Bere lantegian langileen bizi- eta kultura-maila goratzeko apustua egin zuen. Lorategiz hornitutako auzuneak eraiki zituen, langileek prezio eskuragarrietan etxe

3. OWEN ETA OWENISTAK

osasuntsuak eta higienikoak eskura zitzaten; jantokiak eta ekonomatoak antolatuta zituen langile-familien artean oinarritzko kontsumo-gaiak eskura jarri; aurrezki-kutxen sistema moduko bat ezarri zuen; langileen legediei mende erdian aurreratuz, besteak beste, helduen lanaldia 12 ordura murriztu, hamar urtetik beherako umeen enplegua ekidin, eta isunen sistema lanaren gainbegiratze-sistema berritzaileekin ordezkatu zituen; ekonomia-aren atzeraldi-garaietan soldaten ordaintetari eutsi zion, langileen jarduera mantentze-lanetara eta eraikuntza-lanetara bideratuz; eta, bere konbikzioei bide emanez, haur eta helduentzako hezkuntza-egitasmo ezberdinak garatu zituen. Robert Owenen biografia eta pentsamendua sakon aztertu duen Álvarez Laynak azaltzen duenez, New Lanark ez zen harentzat soilik lana kudeatzeko lekua, baizik eta giro moralagoa eta gizatiarragoa sortzeko egitasmoa zen. Asmo horrekin, 1816an Owenek, haur txiroenei bideraturik, izaera eta nortasuna lantzeko eskola eratu zuen. Owenen hezkuntza-sistemak, indarrean zeuden eskemak hautsiz, sariak eta zigorrak saihesten zituen, eta haurren arreta erakarriz heztea bilatzen zuen irakasteko baliabide berritzaileak erabiliz. Esperimentuak filantropo eta aditu askoren arreta erakarri zuen.

Nabarmenezkoa da, baita ere, garai hartan, Owenen motibazio nagusia enpresa kapitalista izaera gizatiarragoaz blaitzera mugatzen bazen ere, New Lanarken kapital-jabeen eskubideak mugatzeko urrats zehatzak eman zituela. Kaplan-ek eta Drimer-ek aztertzen dutenez, «1813an, bere jabetzapeko sozietatearen estatutuan erreforma bat onararazi zuen, zeinaren arabera inbertitutako kapitalak % 5eko urteko interesa baino ez baitzuen jasoko aurrerantzean; mozkinak, berriz, erreserbetara igaroko ziren, eta langileen eta gizartearen intereserako erabiliak izango ziren». Proposamenaren ondorioz, New Lanarkeko zuzendaritza galdu zuen ia, eta enpresako bazkideak behin ordezkaturik lortu zuen neurriak aurrera ateratzea. Baina neurri horiekin, Owenek kapitalari interes finko eta mugatu baten bidez ordaintzeko printzipio kooperatiboaren aurrekaria ezarri zuen, eta, nola edo hala, langileek enpresaren onuraren partaide izateko duten eskubidea aitortu.

Aro hartan, Robert Owenek bere erreforma-saiakerak ekinbide parlamentarioaren bidetik ere garatu zituen. New Lanarken emaitza positiboak

bere baitan gainontzeko enpresa-jabeak konbentzitzeko nahikoak ez zirela ohartuta, estatu mailako lege-erreformarantz zabaldu zuen bere jardun-eremua. Haurrek lantegietan egiten zuten lana mugatzearen aldeko mugimenduan aktiboki inplikaturik ibili zen. 1819an onartu zen Ingalaterran fabriken lehen legea, haurrak soldatapean hartzeko adina bederatzi urtera mugatzen zuena, eta helduen lanaldiak 12 orduan ezartzen zituen.

3.2. VILLAGES OF COOPERATION

Robert Owenen biografiaren bigarren aroa «kooperazio-herrixken» sustapenarekin eta antolaketarekin lotzen da. Kooperazio-herrixkak edo lankidetzazko komunitateak Owenen proposamen berritzaileak ziren, bere gizarte-ikuspegian aurrera egiteko. Formulazioak, dena den, bilakaera esanguratsua ezagutu zuen. Proposamenaren lehen bertsioa Napoleonen gerren amaierak eragindako testuinguruan luzatu zuen Owenek. Lan-eskasiak eragindako krisiari erantzuna bilatzeko asmoz, langabeek laborantza intentsiboaren bidez bizimodua aterata ahal izateko alternatiba gisa proposatu zituen komunitate horiek parlamentuan eraturiko batzorde batean. Lehen proposamen horrek langile ordezkariei kritikak jaso zituen, lankidetzazko komunitateak *workhousen* hedapen gisa ikusten baitzituzten, funts publikoekin edo parrokiakoekin mantenduriko instituzioak, pobreei ostatu ematen zieten fabriketan eta tailerretan lan egitearen truke.

Laster baina, 1817 urtean zehar, Owenek argi eta ozen adierazi zuen egunkarrietan eta hitzaldietan bere plana ez zela soilik langabezia zeudenei lan erabilgarria eskaintzeko bide bat, baizik eta oinarrian ordena sozial eta ekonomikoa erabat eraldatzeko proposamena zegoela. Kooperazioaren herrixken bertsio berriek industria-ekoizpena barnebiltzen zuten. Owenen perspektiban, lankidetzazko komunitate horiek gizartea oinarri berrien gainean birsortzeko bitarteko nagusiak ziren, langileak lehiakortasunaren

3. OWEN ETA OWENISTAK

baitako irabazi-sistematik aterako zituena, eta elkarren arteko lankidetzaren bideragarritasuna erakutsiko ziena. Kooperazio-herrixkak jabetza kolektiboaren ardatzaren baitan irudikatzen zituen, eta lehiakortasunean eta diru-metaketan oinarrituriko sistema gainditzeko norabidean pentsaturiko erreforma-ildo guztien emaitza borobil gisa irudikatzen zituen.

Praktikan, komunitate horiek kooperatiba integral modukoak ziren, ekoizpena zein kontsumoa lankidetzan eta era partekatuan antolatzen zituztenak. Herrixka horiek industria zein nekazaritza-ekoizpena garatuko zituzten. 500 eta 2.000 pertsona bitarteko komunitateak izango ziren, premia eta beharrian guztiak beren baitan asetzeko nahikoak. Jabetza pribatua ezabaturik, ekoizpena eta kontsumoa komunean egingo litzateke. Desberdintasun ekonomikoak zein politikoak ezabaturik, buruzagitza ekonomikoak eta politikoak desagertzera joko lukete, eta berdintasun perfektua nagusituko litzateke. Gobernarien eta gobernatuen bereizketak, aurrerantzean, ez luke zentzurik izango.

Kooperazio-herrixken formulazioan Owenen pentsamenduaren kontzepzio nagusiak barnebiltzen dira. Gizabanakoaren ongizatea eta zoriona ezaugarri horiek komunitate osoan sustatuz soilik lor zitezkeela aldarrikatzen zuen. Horrela, Owenen ikuspegian, lankidetzakomunitateak esperimendu eredu-garriak izango ziren. Haien bidez, lankidetzan eta giza ongizatean oinarri hartuko zuen gizarte-antolamendu berri baten bideragarritasuna erakutsi nahi zuen, lehiakortasuna eta langileen miseria errotik ezabatuko zituena. Komunitate horien garapenean, hezkuntzak arretoa berezia bereganatzen zuen. Oinarritzko eskolan hasten zen, eta 14 urte bete arte irauten zuen, gero eskola politeknikoetan jarraipena izateko. Hezkuntzak komunitateko adingabeen eta gazteen garapen fisikoa eta morala ziurtatu behar zituen, pertsonaren izaeraren erakuntzaren eta bizi kalitatearen bitarteko nagusia baitzen.

Kooperazioaren herrixka horiek, bestalde, Owenen ikuspegi berdintzaileak islatzen zituzten. Pertsonak haien ahaleginaren onena eman beharra zuten komunitatearen onuraren mesedetan. Trukean, familien premiak aintzat hartuta, elikagaiak eta gainerako kontsumo-gaiak eskuratzeko kreditua jasotzen zuten. Gidek eta Ristek ongi adierazi bezala, logika berdinzalea erabatekoa zen, beraz:

«Ikuspegi ekonomikotik begiratuta, doktrina horrek erabateko berdintasuna zehazten zuen, ordainsariak, norberaren ahalmenen ordeztuz, beharrezkoen arabera ezarrituz; zeren eta, zer dela eta adimentsuagoa edo ahaltsuagoa izateak, eta, are, langileagoa izateak berak ere, ordainsari handiagoa eskuratzeko eskubidea eman beharra zuen, baldin eta hori guztia zirkunstantzien eraginekoa bazen? Horra hor Owenen elkarteak logikoki komunistak izatearren arrazoia» .

Beste horrenbeste ondorioztatzen da mozkina abolitzeko helburuarekin. Owenen doktrinan, ordena ekonomikoa eta soziala eraldatzeko, lehen baldintza etekin-grina ezabatzea zen. Haren ustez, etekina ekoizpen-prezioaren soberakina baino ez zen, eta, hortaz, bidegabea bere horretan; izan ere, bere ulermenean, prezio justua fabrikazio-kostuari lotzen zitzaiona zen, nagusiki, ekoizteko beharrezkoa izan den lanaren ordainsariaren bidez kalkula zitekeena. Baina, gainera, etekin-grina arriskutsua ere bazen, superproduktio eta azpikontsumo krisien eragilea baitzen, langilegoari bere lanaren emaitza zen ekoizpena kontsumitzeko oztupoak jartzen zizkiolako eta, ondorioz, ekoiztako guztia kontsumitzea ezinezko bilakatzen zuelako. Horrela, Owenek, kooperazio-herrixken planteamenduan etekin-grina saihesteko, New Lanarken egin bezala, kapitalari interes finko eta mugatu baten bidez ordaintzea defendatzen zuen, etekinen gainean bestelako eskubiderik aitortu gabe. Kooperazio-herrixkak eraiki eta abiatzeko, gobernu-erakundeen edo filantropo partikularren kapital-ekarpena aurreikusten zuen Owenek. Diru horren erabilera ordainsari bat eskaini beharko zela jakitun, interes finko eta mugatuaren formula proposatu zuen, denboraren poderioz, gainera, desagertzera joko zuenaren ustean.

Kapitalen interesen ordainsaria desagertu egingo zen uste hori Owenen pentsamenduaren bestelako zutabeetako batean oinarritzen zen: arrazoimenaren eta aurrerabide sozial eta zientifikoaren gaineko fedea. Owen guztiz sinetsirik zegoen ehungintza-industriaren ekoizpena espontzialki biderkatu zuen teknologia-ahalmena gainontzeko industria- eta nekazaritza-ekoizpenera zabal zitekeela. Hortxe zetzan kooperazio-herrixken arrakastaren gakoa. Eta horren bidez, oparotasun-aro izugarri bat

3. OWEN ETA OWENISTAK

gizadi osoarentzat, kapitalari balioa kenaraziko ziona, eta kapitalaren truke errenta bat jasotzeko gogo oro desagerraraziko zuena. G.D.H. Colek argiki jasotzen du Owenen perspektiba hori:

«Ekoizpen-teknika berrien laguntzaz, industrian zein nekazaritzan, jadanik errealitate bilakatzen ari zen guztiontzat kantitate handietan ekoiztea. 'Ahalmen zientifiko berriak –zioen–, aberastasuna sortzeko, pertsonen lana erabilgarritasun gutxikoa izatea eragingo du laster'. Gainera: 'aberastasuna hain kantitate handian sor daiteke, guztion nahiak ase daitezkeela'; eta, are gehiago: 'aberastasuna menderatzea eta hura eskuratu eta metatzeko nahitik sortzen diren arriskuak amaitzear daude'».

Arrazoiaren argia eta garapen sozial eta zientifikoaren indarra gizarteko sektore aberastan ere ordena ekonomiko eta sozial berriaren bideetara erakartzeko nahikoa zirela konbentziturik, 1824an New Lanarkeko zuzendaritza-ardura utzi eta AEBko Indianan New Harmony kooperazio-herrirka sortu zen Robert Owenek. Politika- eta erlijio-ikuspegi desberdineko 800en bat pertsonaren parte-hartzearekin ekin zion, beraz, lankidetzako-munitateen lehen esperimentuari.

Esperimentu horrek eta gerora saiatuko ziren bestelako esperientziek ez zuten arrakastarik izan. Porrota hainbat arrazoik azaltzen dute. Izan zitezkeen, Kaplanek eta Drimmerrek aipatzen duten moduan, inguruneko presioaren ondorioz, tamainako egitasmoak kudeatzeko esperientzia ezaren eraginez, eta elkarbizitzan sorturiko liskarreatatik porrot egin izana. Edo Santosek adierazten duen gisan, boluntarismo politikoarekin kudeaketa-gaitasun eskasak ordezkatu nahi izan zirelako. Dibergentzia politikoak, azpitaldeen arteko lehiak eta gatazkak aipatzen ditu, bestalde, Colek. Baina dena delakoak izanik porrotaren arrazoiak, New Harmony bere sistema idealaren erakusgarri bilakatzeko fedea galdurik, Robert Owen 1829an Britainia Handira itzuli zen.

3.3. BRITAINIA HANDIKO LANGILE-MUGIMEN- DUAREN BURUZAGI

Robert Owenen ideiak ezagunak ziren langile-mugimenduaren sektoreen artean. AEBtik bueltan, bere doktrinekin bat zetozen langile-ordezkariek eskatu zioten hedatzen ari zen langile-antolakundeen zuzendaritza bere gain hartzeko, kooperazioa oinarri zuen sozialismoaren bidean gidari-lanak egiteko. AEBn egon zen bost urteetan, langile-antolakundeekiko abegikorra zen legedi batek erraztuta, Trade Union edo langileen sindikatuen hedapen nabarmena gertatu zen Britainia Handian, eta, hari loturik, hasia zen esanguratsua bilakatzen ari zen kooperatiben mugimendua garatzen. G.D.H Cole ikerlaria da garaiko langileen mugimendua ezagutzeko erreferentzia nagusia:

«Teoriaren eremuan garapen esanguratsuak gertatu ziren. Esparruetako bat propaganda kooperatibistaren hedapena eta zenbait kooperatiba-denden irekiera izan zen, zeinetan elkarrekikotasun-irizpideen bidez egiten baitziren salerosketak. Kooperatibismo praktiko horren indartzeak ez zion zuzenean ezer zor Oweni, eta hasieran interes gutxi eskaini zion gainera; baina kooperatiben propagandista askok, kontzientzia osoz, Owenen ideietan oinarritu zituzten beren proiektuak, eta txikizkako merkataritza-elkarteen eraketa komunitate kooperatibo autonomoak sortzeko prestakuntza gisa ulertzen zuten» (Cole, 1964: 108).

Aldi berean, Owen atzerrian egon zen denboran, zenbait pentsalarik, nagusiki «antikapitalista rikardotarrak», langileen artean owenismoaren bertsio obrerista berri bat sozializatzen jardun zuten. Pentsalari horien artean William Thompson (1755-1833) nabarmentzen da, ernatzen ari zen langile-mugimenduan eragin nabarmena izan zuena. Thompsonek koo-

3. OWEN ETA OWENISTAK

peratibismoa sistema kapitalistaren ordezeko sistema gisa aurkezten zuen, eta sindikatuei dei egiten zien ekimen kooperatiboak sustatzeko Owenen kooperazio-komunitateen oinarrian ardazturiko gizarte-eredu berria eraikitzeko bidean. Thompsonnek, bestalde, kooperatiben antolaketa beren gain hartzea aholkatzen zien sindikatuei. Fabrika-jabeekin zituzten borroketan, ekoizpena era kooperatiboan antolatuz, sindikatukideak enplegatzeko eta kapitalisten negozioak ordezkatzeko mehatxua haien alde erabiltzeko proposatzen zien sindikatuei. Baina, Owenek ez bezala, zeinak estatuaren eta filantropo aberatsen laguntza hobesten baitzuen kooperazio-herrixkak sustatzeko, Thompsonnek langileak beren emantzipazio-bidearen arduradun zirela aldarrikatzen zuen, eta, edozein botereguneekiko, suharki defendatzen zuen kooperatiben autonomia.

Owenen doktrinak –langile-mugimenduak berregokituak eta berrinterpretatuak– sindikatuetakako langile askoren arreta erakarri zuen. Langileek kooperatiben antolaketa beren emantzipazio-bidearen praktika gisa ulertzea ekarri zuen horrek. Horrela Colek dioenez:

«Produkzio-kooperatiben gorakada azkarra gertatu zen, nagusiki, ugazabekin soldata eta lan-baldintzengatik lehian ari ziren langileek sortua; patrioiak bazter batean uzten saiatzen ziren, ekoizpena eta salerosketen merkata haien kabuz antolatuz. Era berean, kooperatibadenda ugari zegoen, alde batetik, produkzio-kooperatiben produktuak saltzen zituztenak, eta, bestetik, baldintza kapitalisten pean ekoiztako artikuluak saltzen zituztenak baina distribuzio-marjina murriztuz, eta sistema kooperatiboaren garapenean erabil zitekeen soberakin bat sortuz».

Owenek, beraz, mugimendu sindikal eta kooperatibo indartsu baten zuzendaritza hartu zuen bere gain, baina, bere doktrinaren inspirazioz sortua izan arren, dinamika propioa hartua zuena, langile-klasearen aspirazioekin estuki loturik. Horrela, bada, Monzonen hitzak erabiliz, «Owen, bera bizi zen artean ere, owenismoak gainditu zuen». 1830eko hamarkadako mugimendu sindikal eta kooperatibo hori langileen sindikatuen aliantza nazional batean

3.3. Britainia Handiko langile-mugimenduaren buruzagi

(*Grand National Consolidated Trades Union*) gauzatzen saiatu zen. 1831 eta 1835 urteen artean gauzatu ziren kongresuetan finkatu ziren batasun horren helburuak. Langileen eguneroko borrokan esku hartzeaz gain, gizarte-ordena kooperatibo berria lehenbailehen ezartzeko bitartekoa zen batasuna. Baldintza kapitalisten baitan ekoizten jarraitzeko itundutako ezezko baketsu orokor baten bidez lortu nahi zen berau. Estrategia horren baitan, sistema kooperatibo osoa ezartzeko urrats gisa, ekoizpen eta merkataritza kooperatiboa sustatzen zen. Esperientzia kooperatibo horiek gizarte-antolaketa berriaren bideragarritasuna frogatu asmo zuten eskala txikiko saiakerak ziren, langileak, patroik edo bitartekari kapitalistarik gabe, beren produktuak trukatzeko formulak topatzera bideratuak.

Owen saiatu zen esperientzia horiei eskala handiagoa ematen. Testuinguru horretan, *National Equitable Labour Exchange*, langileen ekoizpenaren trukeko burtsa nazionala bilakatzeko bokazioz sortu zena aurkeztu zuen. Askoren ustetan, owenismoaren esperimenturik originalena eta interesgarriena. Etekin kapitalista ezabatzeko sortu zen. Bide bikoitz batez bilatzen zen helburua. Alde batetik, ekoizleen eta kontsumitzaileen harreman zuzena erraztuz eta bitartekariak desagerraraziz; bestetik, diru truke-sistemaren mekanismoa ezabatuz eta, haren ordean, ekoizpenean erabilitako lan kopuruaren arabera kalkulatzeko ziren «lan-bonu»en sistema ezarritik. Gidek eta Ristek azaltzen dutenez, Owenentzat:

«Etekinaren tresna dirua da, moneta: haren bidez gauzatu da etekina; haren bidez irristatzen da truke orotan, eta haren bidez egiten da posible bere balioaren gainetik saldutako merkantziaren anomalia hori. Monetaren aurka jo behar da, beraz; lan-bonoek (labour notes) ordezkatu behar dute, eta hori izango da balioaren benetako irizpidea, metalezko edo paperezko moneta baino askoz gehiago, lana baita balioaren arrazoia eta funtsa, eta, hortaz, naturala da haren neurria ere izatea. (...) Produktu batek zenbat lanorduren kostua duen, hainbat lan-bonu jasoko ditu ekoizleak saltzerakoan, eta beste horrenbeste eman beharko dizkio kontsumitzaileak, ez gehiago ez gutxiago, erosterakoan. Horrela, etekina desagertu egingo da».

3. OWEN ETA OWENISTAK

Sistema pentsaturik zegoen produkzio-kooperatibetan antolaturiko ofizioek, ekoizpenean erabilitako ordu kopuruak zehazturiko balioaren arabera, produktuak truka zituzten. Praktikan, biltegidun elkarte kooperatibo gisa funtzionatzen zuen. Bazkideak bere lanaren emaitza zen produktua bertara eramane, eta trukean bere balioa lan-bonuetan jasotzen zuen. Produktuak biltegian gordetzen ziren lanorduetan adierazitako salneurriarekin eta lan-bonuen bidez eskuratu nahi zituzten bazkideen eskura geratzen ziren.

Owenek sustatutako esperientzia aitzindariak Londresen, 1832an, ireki zituen ateak. Laster, jarraian, Birmingham, Liverpool eta Glasgow hirietan biltegi kooperatibo berriak zabaldu ziren. Hasieran nolabaiteko arrakasta izan bazuten ere, 1834 urte inguruan desagertu ziren elkarte horiek. Bidegarritasuna zalantzan jarri zuten arrazoiak agertu ziren.

Hasieratik, elkarte horiek arazoak izan zituzten produktu kopuru baten muga gainditzeko. Ondorioz, ekoizpena eta kontsumoa elkar orekatu gabe geratzeko joera nagusitzen zen. Saldu gabe geratzen ziren artikuluak pilatu egiten ziren, eta bazkideek ez zituzten beti intereseko artikuluak topatzen.

Bestetik, bazkideek ekoiztiko produktuen balioa neurritz kanpo handitzeko joera zuten, erabilitakoak baino ordu kopuru gehiago aitortuz. Horri soluzioa emateko, elkarrekin kontrataturiko perituak produktuak tasatzen hasi ziren. Haien lana, baina, batetik mesfidantzaren susmopean geratzen zen eta, bestetik, gainera, jasotako produktuak diru-irizpideen gainean tasatzen zituzten, ondoren balio hori lan-bonuetan adierazteko, Owenen sistema praktikan baliogabetuz.

Azkenik, bazkide fundatzaileen altruismoa bazkide berrien etorreran urturik, espekulazio-praktikak agertu ziren. Horiek kalitate eskaseko produktuak eramane zituzten biltegiara, eta lan-bonuak eskuratu. Lan-bonuekin biltegian zeuden kalitatezko produktuak eskuratu, eta azoka arruntetan prezio altuagoan eta eskudirutan saltzen zituzten. Praktika horiei merkataritxikien jokabidea gehitu zitzaion. Lan-bonuak nominalak ez zirela baliatuz, beren kontsumo-gaiak erosteko ordainagiri gisa onartzen zituzten; jarraian, biltegia hustu eta baliozko produkturik geratzen ez zenean, ez zuten lan-bonu gehiagorik onartzen.

3.3. Britainia Handiko langile-mugimenduaren buruzagi
3.4. Owen eta owenisten ekarpena eredu kooperatiboaren sorrerari

Owenen hirugarren etapa hori mugimendu sindikal britainiarrarekiko urruntzearekin amaituko da. Borrokaren erradikalizazioak eta klaseen arteko borrokaren ikuspegiekiko atxikimendu gero eta nabarmenagoak Owenen uzurtzea eragingo dute. Era berean, langile buruzagi batzuek, Owenen izaera aristokratikoa eta paternalista iritzi hartuta, harekiko distantzia hartuko dute. Langile-mugimendua, dena dela, patronalaren eta gobernuaren errepresiori eutsi ezinez gainbeheran sartu zen, harekin batera, amaiera emanez 1825etik 1835era iraun zuen kooperatibismoaren loraldiari.

3.4. OWEN ETA OWENISTEN EKARPENA EREDU KOOPERATIBOAREN SORRERARI

Owenek sustatu zituen egitasmoetako askok arrakastarik gabe porrot egin bazuten ere, zalantzarik ez dago kooperatiben ereduaren sorrerari hark egindako ekarpenaz. Mladenatzek gogorarazten duenez, Robert Owen izan zen kooperazio kontzeptua erabiltzen lehena, nahiz eta bere ulermenean, lehiakortasun indibidualistaren aurkakotasunean eraikia, kooperatibismoaren nozio modernoarekin baino antz handiagoa zuen «komunismo»aren kontzeptuarekin.

Aipagarria da, oraindik bizirik zegoela, 1830eko hamarkadan stores edo salmentarako biltegi gisa ezagunak egiten hasi ziren kontsumo-kooperatibekiko jarrera adierazi zuela Owenek. Kontsumo-kooperatiba haiek ez ziren eraiki nahi zuen sistemaren adierazgarriak. Bere asmoak handiagoak ziren. Konponbide osoa edo integrala zen bilatzen zuena, ez soilik kontsumo edo distribuzioaren arazoari irtenbidea ematea. Hezkuntza, ekoizpena eta bizi-antolamendua zituen ardatz.

Hori, dena den, ez da oztopo eredu kooperatiboaren sorreran ekarpen berezia egin zuela aitortzeko, edo, Paul Lambert adituak egiten duen

3. OWEN ETA OWENISTAK

bezala, Robert Owen, Charles Fourierrekin bat, «kooperazioaren guraso» definitzeko. Baieztapen hori egiteko, egon badaude argudio sendoak.

Owenen ideien eraginpean sustatu zituzten haren jarraitzaileek 1830eko hamarkadan Britainia Handian hainbat eta hainbat kontsumo- eta produktio-kooperatiba. Owen giltzarri izan zen, behingoz, kooperatibismoaren ideia ordena sozial eta ekonomikoaren eraldaketarekin lotzeko. Horrek erraztu zuen langile-erakundeek kooperatiben sustapena, emantzipazio bidean, beren baitako jardun gisa ulertzea. Kooperatiba owenistek denboran bat egin zuten aurrez era espontaneoan herri-sektoreek sortutako kooperatiba forma ezberdinekin, eta baita Brighton-eko King doktorea moduko aktibistek bultzatuta sortu ziren kooperatiba berriekin ere. Kooperatiba horietako gehienek gutxi iraun bazuten ere, esperimentazio praktikoa horien irakaspenetan oinarriturik eraikiko zuten gerora Rochdale-ko aitzindariak euren eredu arrakastatsua. Mundu kooperatiboan erreferentzia bilakatu ziren estatuetan jaso zituzten irakaspen horietako asko.

Ukaezina da, bestalde, Owenen eta Rochdaleko aitzindarien esperientzia kooperatiboaren arteko haria. 28 aitzindarietatik gutxienez sei Owenen ideien jarraitzaile aitortuak ziren, tartean Howarth eta Cooper, Rochdaleko esperientziaren arima izan zirenak. Lotura hori nabarmen ikusten da 1844ko Rochdale kooperatibaren estatutuen lehen artikulua pasarte honetan:

«Ahal den unetik bertatik, elkarre honek ekoizpen-indarren, distribuzioaren, heziketaren eta gobernuaren antolaketari ekingo dio, edo, beste hitzez adierazita, buruaskia izango den eta interesak partekatutako izango dituen kolonia bat ezartzeari ekingo dio, edo era horretako koloniak ezarri ahal izateko laguntza eskainiko die beste elkarre batzuei».

Rochdaleko esperientzia kooperatiboa, beraz, Owenen ideiek inspiraturiko bulkada eraldatzailearen haritik sortu zen. Gogoan izatea komeni da Rochdaleko proiektu kooperatiboak lankidetzakomunitate integrala eratzea zuela ardatz bere hastapenean, eta kontsumo-kooperatiba, Dionisio

3.4. Owen eta owenisten ekarpena eredu kooperatiboaren sorrerari

Aranzadiak baieztatzen zuen eran, asmo taktikoz garaturiko urratsa baino ez zela.

Owenen eragina mugimendu kooperatiboak bere baitan hartutako arau eta printzipioetan ere islatu da. Haren etekinaren abolizioaren ideia zordun argiak dira bitartekari kapitalistak desagertzea, kapitalari interes finko eta mugatuaren bidez ordaintzeko printzipioa, eta –Owenek berak zuzenean formulatu ez bazuen ere, eta haren jarraitzaile batzuen inizatiba izan bazen ere– itzulkin kooperatiboaren printzipioa. Antzera gertatzen da, baita ere, heziketa-printzipioa eta neutraltasun politiko eta erlijiosoa zehazten dituzten printzipioekin.

Lambertek adierazten duenez, Owenen ekarpenaren bidetik, finkaturik gelditzen dira eredu kooperatiboaren oinarri ideologikoak osatzen dituzten funtsezko printzipioetako batzuk. Honako hauek dira printzipio nagusi horiek: elkartearen edo elkartzearen ideia bera, elkartearen izaera boluntarioa, eta enpresaren zerbitzu-bokazioa mozkin-asmoaren aurretik.

Kooperatibek bere egingo dituzten printzipioen ikuspegitik, aipatzekoak dira Owenen hainbat hutsune ere. Horiek autolaguntza edo *self help* printzipioekin eta demokraziaren ikuspegiarekin dute zerikusia. Aipatu izan da Owenek, bere egitasmoak finantzatzeko, langileen baliabideen eta arduren aurretik, nahiago zuela gobernu-ordezkarien edo aberats filantropoen babesa. Horrekin bat, badirudi Owenek langileen ahalmenak gutxiesteko joera zuela, mesfidatia zela soldatapekoen bat-bateko esfortzu-gaitasunaz, eta uzkur agertzen zela langileen autokudeaketarako gaitasunaz. Demokrazia printzipioarekiko jarrera epela egotzi izan zaio Oweni. Langile-sektoreen aspirazioen bulkadaz, eta beste hainbat pentsalarik egindako ekarpenen bidez, ikusi ahal izango dugun moduan, bilakatuko dira balio horiek eredu kooperatiboaren funtsezko osagai.



4 WILLIAM KING
DOKTOREA



4.1. King doktoreak eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena

4. WILLIAM KING DOKTOREA

William King doktoreak (1786-1865) leku berezia merezi du mugimendu kooperatiboaren aitzindarien artean. Izan ere, Brighton hiriko mediku hau, kooperatibismoaren oinarriak zehazten eta zabaltzen lan handia egina izateaz gain, kooperatiba ugariaren –kontsumo izaerakoena, nagusiki– sustatzailea ere izan zen. Lehen urratsa 1827an egin zuen, *The Cooperative Trading Association* kontsumo-kooperatiba sortu zuenean Brightonen. Jarraian, 1828 eta 1830 bitartean jardunean egon zen *The Co-operator* hilabetekaria sortu zuen, bertatik ideia kooperatiboaren sozializazio-lan oparoa eginez. Aipatzen denez, 300 elkarte kooperatibo baino gehiago sortu ziren bere eraginpean, eta hainbat kongresu egin zituzten 1831 eta 1835 urteen artean.

King doktoreak, beraz, aktiboki parte hartu zuen kooperatibek 1830eko hamarkadako Britainia Handian ezagutu zuten garapen garrantzitsuan. Kingen planteamenduetako asko bat zetozen Owenek zabalduriko doktrinekin, eta, hori dela eta, Owenen dizipuluen eremuan kokatu izan da. Kooperatiben sustapena, adibidez, Owenek aldarrikatzen zuen gizartearen eraldaketa integralaren planaren baitan kokatzen zuen. 1831n gauzaturiko kongresuaren ebazpena erabiltzen du Paul Lambertek Kingen ikuspegiaren ezaugarri hori erakusteko:

«Gogoan izan behar dugu, beti, gaur egungo elkarteak elkarrekiko lankidetzako komunitateak ezartzeko bideak baino ez direla. Helburu baterako bitartekoak besterik ez dira, begi-bistatik inoiz galdu behar ez den helburua».

1832an Londresen gauzatu zen beste kongresu batean kooperatiben helburu hori azpimarratu zen. Ebazpenean aipatzen zenez, elkarte kooperatiboaren azken funtsa –izan horiek kontsumokoak, industriakoak edo nekazaritzakoak– komunitateen ezarpena zen. Owenen planteamenduei jarraituz, King doktoreak inspiraturiko kooperatiben soberakinen zatirik handiena kooperazio-herrixkak sortzeko bideratua zen.

Horrek guztiak, baina, ez ditu ezkututzen, Owenen ikuspegiaren aldean, King doktorearen ñabardura originalak, kooperatibismoaren ideiarekin eraikuntzan, bide batez, ekarpen espezifikoak bistaratzen dutenak. Hasteko, King

kristaua izanik, tupust egiten zuen Owenen doktrinaren alderdi garrantzi-
tsuekin. Erljioaren oso bestelako ikuskera zuen, eta, izaeraren eraketaren
ikuspegiari zegokionez ere, ez zetorren bat Owenen planteamenduekin.
Kooperazioaren ideia gauzatzeko moduan ere nabarmenak dira ezber-
dintasunak. King doktorearen ikuspuntutik, *self help* printzipioak bere-
ganatzen duen indarra eta kontsumo-kooperatibek duten garrantzia dira
ikusmolde desberdin horren gako azpimarragarriak.

Uste sakon bat zuen: lana langileen interesen mesedetan antolatua
izateko sortzen da kooperazioaren sistema. Haren ikuspegian, langileak,
kapitalik ez zutelako eta beren lana kapitalaren jabeei saldu beharra
zutelako, mendekotasun-egoeran zeuden, eta ezinezkoa zuten beren
lana nahieran beren intereserako erabiltzea. Egoera horren aurrean,
kooperatibak langileari kapitalaren morrontzatik askatzeko bidea eskain-
tzen dio. Elkarte kooperatiboaren bidez, indar sakabanatuak batuz eta
interes partekatuak elkartuz, lor dezakete langileek kapitalaren mende-
kotasunetik askatzeko ahalmena. Baina King, Owenen aldean, sinetsirik
zegoen langileen klaseak emantzipazioaren bidea bere kabuz, baliabide
propioak garatuz eta elkar lagunduz soilik lor zezakeela. Hau da, koope-
razioak, nagusiki, kooperatibisten gauza izan beharra zuela, argi izanik
langileak berak zirela beren emantzipazioaren subjektu protagonista eta
erantzule nagusiak, gobernuaren edo aberats filantropoen tutoretzarik
edo eraginik onartu gabe. «*Self help*aren apostolua» zen William King
doktorea Paul Lambertentzat.

Printzipio horri jarraiki, King doktorearen aldarria zen langileek beren inda-
rra eta boterea, funtsean lanerako ahalmenean eta kontsumo-ahalmenean
egikaritzen zena, beren probetxurako erabil zezatela, klase arrotzen inte-
resen mesedera ezarri beharrean. Kingen ikuspegian, beren lanari esker,
langileak kapital ororen sorrera-iturriaren jabe ziren; azken finean, kapitala
lanetik eratorritako emaitza baino ez zen eta: erreserban utzitako lanaren
produktua besterik ez. Langileek, horrela, lan-indarraren monopolioa zu-
tenez, lankidetzara erabiliz, kapital kolektibo baten jabe bihurtzeko aukera
zuten, zeinak, bide batez, aukera eskaintzen baitzuen lanaren antolaketa
langileen interesen arabera egituratzeko. Haren argitalpen batean adie-
razten zuenez, aurrezkoa eta kapital-sorkuntza dira gakoak:

4. WILLIAM KING DOKTOREA

«Lanaren ahalmenaren jabe denak, nahi izanez gero, kapitala ere eskura dezake. Eta horrekin aski du bere lanaren emaitzaren zati bat erreserban jartzeko, zati garrantzitsu bat, produktu berriak sortu ahala bere beharrak asetzeko aukera eskainiko diona. (...) Beste batentzat lan egiten duen edozein pertsona zerbitzaria da. Baina, beharrak bere lanaren bidez asetzeko, beharrezkoa den kapitala aurreztu dezakeen zerbitzari oro bere buruaren jaun eta jabe bihurtzen da».

Hortaz, kapitalaren aferari soluzioa emateko, langileek beren lanaren emaitzaren zati bat aurrezteko aholkatu zuen, bazkideen asteroko diru-ekarpenen bidez kooperatibak martxan jartzeko kapitala sortzeko.

Baina lanerako eta aurrezteko ahalmenaz beste, King doktoreak erakutsi zuenez, langileek bazuten eskura beste baliabide garrantzitsu bat: beren erosahalmena. Baliabide horri etekina ateratzeko, ohiko kontsumo-artikuluak erosterakoan merkatari pribatuei eta bitartekariei ordaintzen zizkieten dirutza izugarriak beren onuran kapitalizatu ahal izateko, denda-sistema propioa antolatzen proposamena luzatzen zion langilegoari. 1828ko abuztuko *The Co-operator* kazetan idatzita utzi zuenez:

«Langile-klaseek garrantzi handiko arrazoia dute berentzat dendak irekitzeko. Langile-klaseek urtero gastatzen duten diru kopurua izugarria da. Hainbat milioitan zenba daiteke. Kopuru horretatik eratorritako etekina nahikoa litzateke, berez, fabrika ugari ezartzeko. Ez da botere falta; aitzitik, ezagutza falta da langileei martxan jarri eta ekitea galarazten diena. Beren merkatari izateak eta beren buruarentzat lan egiteak etekinak ekarriko dizkie, eta, ondorioz, baita independentzia ere».

Lambertek zioenez, langileen kontsumo-ahalmenaren gakoaz ohartzaraztea izan zen King doktorearen ekarpenik azpimarragarriena. Baina, nabarmentzen zuenez, Kingen eta kooperatibismoaren gainontzeko aitzindarien planteamenduak langilegoaren unean uneko premien irtenbide partziala bilatzetik harago zihoazen. Horien guztien buruetan, kooperazio-sistema giltzarria da erregimen ekonomiko eta soziala eraldatzeko, eta

4.1. King doktoreak eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena

baita pertsonak nobleziaz eta eskuzabaltasunaz ezaugarritutako moral izaera baterantz goratzeko formula ere. Ildo horretan, eskola-kooperatibak eta hezkuntza-egitasmoak leku berezia hartzen zuen Kingen planteamenduan. King doktorearen asmo originala zen langileen erosahalmena baliatzea, kontsumo-kooperatibak antolatuz, kapitalismoaren erregimen ekonomiko eta soziala iraultzeko. Mladenatzek argi eta zehatz ulertu zuen Kingen ikuspegia:

«Bazkideek berek aurreztu behar dute enpresa komunarentzat beharrezkoa den kapitala. Hasieran, bazkide bakoitzak astean sei penny aurreztu beharko ditu kapital soziala eratzeko ekarpen gisa. Kooperatibak salgaien merkataritzaren irabaziak haientzat mantentzen ditu. Metaturiko soberakinekin funtsak eratzen dira, enpresa komuna garatzeko erabiliko direnak. Hastapenean, funts horiek, kontsumorako biltegien bidez, bazkideek bizi ahal izateko gaien elkarrekiko hornidura ziurtatuko dute. Biltegi horien soberakin komunak, bestalde, funts berriak metatzeko aukera eskainiko du. Horiek erabiliko dira ekoizpen propioa antolatzeko eta nekazaritza-lurrak eskuratzeko. Horrela, ekoizpen-bitartekoen jabetza pribatutik jabetza kooperatibora igarotzea lortu da».

4.1. KING DOKTOREAK EREDU KOOPERATIBOAREN SORRERARI EGINDAKO EKARPENA

Zalantzarik ez dago William King doktoreak leku nabarmena merezi duela eredu kooperatiboaren aitzindarien artean. *Self help* edo autolauntzaren printzipioa haren ondare garrantzitsuenetakoa da. Kooperazio-sistema, langile-klasearen emantzipazio-bidearen adierazpena den

4. WILLIAM KING DOKTOREA

heinean, langileen beren egitekoa eta erantzukizuna zela zehazturik utzi zuen. Bestalde, kontsumoaren ardatzak bere formulazioan hartzen duen garrantzian oinarriturik, King kontsumo-kooperatibismoaren aitzindari nagusizat har daiteke. Hainbatek nabarmentzen dutenez, gainera, haren eraginpean sustaturiko kooperatiba-esperientzietan, gerora mugimendu kooperatiboaren arrakastaren giltzarri izango ziren praktikak aurki daitezke. Erosketa kopuruaren araberrako emaitzen birbanaketa, adibidez, Rochdaleko esperientziak eredu kooperatiboaren oinarritzko printzipioen mailara goratuko duena. Kontsumo-kooperatiben ernamuietik abiatu-rik, industria-ekoizpena eta nekazaritza kooperatibizatze-ko urratsa ere XX. mendearan hasieran Charles Gidek eta Nantese-ko Eskolak formulatu-ko duten «hiru etapen» eraldaketa kooperatiboaren aurrekari argia da, Paul Lambertek berak gogora ekarri-ko duenez.

Baina King doktorearen ekarpena bestelako printzipio kooperatibo batzuen oinarrian ere ikusten du Lambertek. Lankidetzaren borondatezko izaeran, esaterako. Argi eta zehatz aipatu zuen kooperatibismoaren printzipio hori 1829ko idatzian:

«Kooperazioa borondatezko ekintza da, eta munduko botere guztiak ere ezin du nahitaezko bihurtu; eta ez da desiratzekoa berea ez den beste botere baten mende egoterik».

Berea da neutraltasun printzipioaren formulazioa ere, Lambertek ustez, gerora Rochdaleko aitzindari-ek baino hobe adierazita dagoena 1832an gauzaturiko kongresuaren ebazpenean:

«Kooperatiben errealitateak erlijio-sekta guztietako eta alderdi politiko guztietako pertsonak biltzen dituenez, aho batez erabakitzen da, kooperadoreak, hala diren aldetik, ez daudela inolako dogma erlijioso, erlijio-gabe edo politikorekin identifikatuta».

Dena den, Kingen pentsamendu-ekarpenak garrantzi handi-agoa hartzen du bere jardun praktikoa aintzat hartuz gero. Monzonek eskaintzen

4.1. King doktoreak eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena

duen datuari erreparaturik, 300dik gora kooperatiba sortu ziren haren eraginpean. Owenen kasuan bezala, kooperatiba horiek ez zuten ibilbide praktiko iraunkorrik garatu. Baina, zalantzarik gabe, Rochdaleko ereduaren arrakasta-gakoak oinarritzeko gakoak izan ziren. Irakaspenerako lehengai baliotsuak ziren, Mladenatzek adierazi bezala:

«Haien elkarteek bazkide kopuru mugatua zuten, eta, ondorioz, ez zuten aurrera egiteko adinako erosketa-ahalmenik. Bestalde, bazkideek jarritako kapital kopurua ez zen saritzen; ohiko merkatu-prezioan saltzen zen; lortutako soberakinak ez ziren bazkide-bezeroen artean banatzen, (...) kapital kolektiboa eratzera bideratzen ziren. Horrela, bazkidea ez zen saritzen, ez bazkide gisa, ez bezero gisa ere. Kooperatiban parte hartzeak ez zion inolako abantailarik ematen bazkideari».

Hurrengo liburuxkan ikusteko aukera izango dugun moduan, ez da zaila izango lehen esperientzia kooperatibo horien eta Rochdaleko aitzindarien arteko haria topatzea.

Baina, orain artean ikusitakoa laburbilduz, kooperatibismoaren sustraiak bilatzeko ariketa honek, lehen-lehenik, Britainia Handira ekarri gaitu. Industria-kapitalismoaren hastapenetan, langileek eta herri-sektoreek garatu zituzten elkarte eta elkarte praktikak aztertu genituen aurreko liburuxkan. Sozialista asoziazionista gisa identifikatu ditugun ekintzaile eta pentsalarien ekarpenari begiratu ematen ari gara honako honetan. Britainia Handian Robert Owen eta William King doktorea dira erreferentzia nagusiak. Haien pentsamenduaren zutabeetan, irudikatu zituzten aterabideetan, eta haien ideien eraginpean garatu ziren ekimen praktiko ugarietan agertzen dira mugimendu kooperatibo britainiar modernoaren lehen oinarriak. Owen eta King protagonista izan zituen aro historiko honen formula kooperatiboa eratzeko bidean izandako garrantzia honako gako hauetan hezurramitzen da:

- Kooperatiba ugari sortu, sareetan elkartu, norabide partekatutako kongresuetan eztabaidatu eta adostu... Aro honetan hasten da gorpuzten

4. WILLIAM KING DOKTOREA

mugimendu kooperatiboa kontzeptua bera, eta estatus berezia berenganatzen du kooperatiba guztien aliantzaren nozioak.

- Kooperatibismoaren edo lankidetzaren oinarri ideologikoak ezartzen dira batetik. Bestetik, ekimen kooperatibo praktiko horien akatsen eta arrakasten irakaspenen gainean eraikiko dira, gerora, enpresa kooperatiboaren bideragarritasuna ziurtatzen duten oinarritzko printzipioak eta arauak.
- Elkarre kooperatiboen babes eta laguntza funtzio soila gaindituz, dimentsio politikoa eta eraldatzailea esleitzen zaizkio kooperatibismoari aro honetan. Kooperatibek rol eta funtzio zehatzak berenganatzen dituzte erregimen ekonomiko eta sozial kapitalista iraultzeko norabidean. Kooperatiben sustapena eta hedapena asmo nagusi horren berezko zutabea dira.
- Kooperatibismoa, beste ekintza-ildo batzuekin batera, langileen emantzipazio bidean langile-mugimenduak bere egingo duen ikuspegi eta ildo bilakatzen da.

Aro honen garrantzia, hortaz, erabatekoa da. Kapitalismo industrial Britainia Handitik Europara eta mundura zabaldu ahala, kooperatibismoaren oinarriak eta formulazioak ere hedatu egingo dira. Frantzia dugu hurrengo geldialdia.

4.1. King doktoreak eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena



5

FOURIER ETA
FOURIERISTAK



5.1. Falansterioen sistema

5.2. Lan erakargarria

5.3. Fourierrek eta fourieristek eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena

5. FOURIER ETA FOURIERISTAK

Frantzian, kooperazioaren edo lankidetzaren ideiaen hastapenak François Marie Charles Fourier (1772-1837) pentsalari ezagunarekin lotzen dira, nahiz eta, ikusteko aukera izango dugun moduan, hainbaten aldetik baieztapen hori zalantzan jarri ohi den.

Fourier Besançon-en jaio zen erdi-mailako merkatari-familia baten baitan. Aitak oinordetzan utzitako dirua espezia-negozio batean galdu ostean, Fourierrek bulego-langile eta saltzaile jardun zuen bizimodua aurrera ateratzeko. Owen ez bezala, ez zen ekintza-gizona izan. Bere ekarpenak, hortaz, liburuetan idatzita utzi zituen ideietara mugatzen dira. Horien artean erreferentzia nagusia 1822an argitaratu zuen «Etxe- eta nekazaritza-elkarteari buruzko tratatua» da, bertan azaldu baitzituen falansterioetan oinarrituriko elkartze-sistemaren gakoak. Bizirik zegoela, ez zuen irudikatuturiko bizikidetzeta-sistema praktikan jartzetik izan. Bere sistemaren onurez sinetsita kapitala jarriko zuen finantzatzaile baten zain pasatu zuen bere bizitzaren zatirik handiena. Fourierren doktrinen jarraitzaileak izan ziren, hura hil ondoren, haren ideiak praktikan jartzen saiatu zirenak.

Fourierrek, Owenen antzera, pertsonak elkartzearen bidez, lehiaren printzipioa desagerrarazi eta ekoizpena eta kontsumoa komunean antolatuko zituzten komunitateak eratu nahi zituen. Bat zetozen biak honetan: inolako bortxarik gabe eta boteretik konkistatu gabe posible zela era horretako alternatibak eraikitzea. Sinetsirik zeuden sortu nahi zuten esperentziaren eredugarritasuna bera nahikoa zela, aberats zein langile, beren planteamenduetara erakartzeko eta, luzera, ordena ekonomiko eta sozial berri baten trantsizio harmonikoa gauzatzeko. Fourierrek, baina, Owenen aldean, ñabardura garrantzitsuak erakusten zituen.

Desberdintasun esanguratsuenetakoa da giza izaeraren eraketaz zuten ikuskera ezberdina. Inplikazio praktikoak eratortzen dira ikuspegi ezberdin horietatik. Izan ere, oinarrian, Fourierren eraldaketa sozialaren bideak gizakia, bere horretan, den bezalakoa onartzea defendatzen zuen. Ez zela zertan gizakia eraldatu edo modelatu behar, alegia. Gizakiaren izaeraren aldaezintasuna da haren doktrinaren funtsa. Fourierren ulermenean, ordena sozial harmoniko bat bermatu ahal izango da, soilik, Jaungoikoak gizakiei grinak, instintuak eta desirak izateko ahalmena errespetatzen badie

eta ordena hori horren oinarrian eraikitzen bada. Gizakiaren zoriontasuna eta horrekin txirikordatzaren diren desira eta giza pasioen aitortza dira Fourierren proposamenaren funtsaren gako nagusiak. Oinarri horren gainean egingo dio Fourierrek kritika zorrotza garaiko zibilizazioari. Lehiaren erregimena, soldatapeko lan behartua, familia-eredu patriarkala edo ezkontza monogamoaren moduko instituzio absurdoak salatuko ditu, kanon moral zurrinak ezartzen zituztelako, eta gizon eta emakumeen sakoneko grinak eta bulkada naturalak erreprimitu eta irrazionaltasunaren eremuan baztertzen zituztelako.

Horrela bada, Owenen ikuspegiaren aurka, ingurunea berrantolatuz pertsonaren izaera nahieran tolestu eta moldeka zitekeenaren doktrina errefusatu egiten zuen. Colek dioenez, moralisten etsai sutsua zen Fourier, gorroto zituelako antolamendu soziala «pertsonak beren borondatearen kontra ere, on izatera bilakatzeko» baliabide gisa ulertzen zituzten posizionamenduak. Fourierren ustez, gakoa zen gizakien natura eta izaera bere horretan onartuko zuen gizarte-antolamendua eraikitzea, eta ez, kontrara, pertsonen izaera etengabe aldatzen ibiltzen saiatzea. Hauxe da, hain zuzen ere, Fourierren doktrinaren atalik sendoena Coleren iritziz: instituzio sozialak gizakien nahi eta desiretara egokituak egotearen premia erakustea; pertsonak eroso eta erraz bizi zitezkeela desira naturalak asetzeko bideak eskainiz gero, eta arrazoiaren izenean moralistek ezarritako bizimodu artifizialik inposatzen ez zitzaizkion.

Zibilizazio industrial modernoaren oinarriak deitoratu egiten zituen Fourierrek. Oparotasunaren erraietatik miseria nola hedatzen zen, maki-neriaren tristura, eta langileen gizatasun galera gaitzesgarriak zitzaizkion. Pobreziarekin, injustiziarekin eta esplotazioarekin amaitzea nahikoa ez zela iritzita, helburu anbiziotsuagoa zuen amets, munduaren diseinu erabat berria, non gizon eta emakumeek zoriontasunez bizi ahal izateko baldintzak topatuko baitzituzten. Gizarte-eraldaketarako gakoa elkartzeko printzipioaren garapenean ikusi zuen. Bi motibazio-iturrik indartuko dute elkartzeko printzipio hori: pertsonen desirek eta grinek sustaturiko elkarte askeak, eta lanaren erakargarritasunak. Falansterioen sisteman irudikatu zituen Fourierrek ordena harmoniko idealaren xehetasunak.

5.1. FALANSTERIOEN SISTEMA

Charles Fourierrek irudikatutako sisteman falangeak oinarritzko gizarte-unitateak dira. 1.500 eta 1.800 pertsona inguruz osatuta, *falansterio* izeneko kolonia komunetan kokatzen dira. Falansterioak 2.000 hektareako eremu laukizuzena dauka, hektarea bat baino apur bat gehiago kide bakoitzeko. Espazio hori eraikin nagusi baten inguruan egituratzen da. Zerbitzu komun bidez falansterioko kideen premiei erantzuten die eraikinak: ostatu, jan eta etxe-zerbitzuari dagozkien ataletatik hasita, areto, irakurketa eta jolaserako gela eta bestelako eraikin sozialetaraino. Fourierrek irudikatu zuenez, falange bakoitza buruaskia izango zen lankidetzan gauzaturiko ekoizpen eta kontsumoaren bidez osagarri bihurtuz. Bide horretatik, gainera, garaian zabalduak zeuden jokabide indibidualistak eta berekoiak ekidingo ziren ustea zuen. Falansterioa, halaber, elkarre moduan eratzen zen, eta bazkideek baino ezingo zuten, beraz, ekoizpen eta kontsumo komunean parte hartu.

Baina Fourierren sistema horrek, eredu kooperatiboa oinarrituko den printzipioen galbahetik ikusita, alderdi zalantzakorrak zituen. Fourierren egitasmoaren asmo nagusia, kooperatiben gainontzeko aitzindariengan ez bezala, ez zen fabriketako eskulangileen egoeraren inguruan soilik ardatzen. Britainia Handiko auzo langileetan ez bezala, Industria Iraultzaren eragina ez zen, oraindik, bere gordintasun osoan bizitzen Fourier bere sistema irudikatzen hasi zen garai hartan. Fourierren kezka nagusia beste bat zen. Falansterioak klase sozial desberdinetako parte-hartzearen bidez eratzea zen asmoa. Laborariak eta eskulangileak izango ziren zortzitik zazpi; kapitalistak, jakintsuak eta artistak gainontzekoak. Fourierrek klaseen arteko bizi-eredu partekatu baten oinarriak ezarri nahi zituen, sinetsirik baitzegoen bazkideen arteko eguneroko harremanen gainean norabide anitzeko elkartasun-sare sakonak ehundu zitezkeela. Klaseak, baina, ez ziren desagertzen. Fourierren helburua ez zen desberdintasun sozialak ezabatzea, ezta jabetza indibiduala eta herentzia desagerraraztea ere. Bere ustean, erabateko berdintasuna ez zetorren bat giza naturarekin. Bizi-

ekoizpen- eta kontsumo-oinarri partekatuak bateragarriak ikusten zituen bizi-maila desberdinak mantentzen zituen gizartearekin. Horrela, kideen maila ekonomikoaren arabera, menu eta etxebizitza-eredu ezberdinak aurrekusten zituen bere sisteman. Eta antzera gertatzen zen ordainsariekin ere, pertsonen desira naturalaren baitakoa baita haien lanaren ezaugarriaren arabera ordainduak izatearen nahia, eta bidegabea eta zentzugabea zeritzon desio horren kontra egiteari.

Ikuspegi horrek guztiak isla zuzena du bazkideen kapitalaren trataeran. Eta alderdi horretan urruntzen da gehien Fourierren sistema eredu kooperatiboaren oinarrietatik. Langileen eta kapitalisten interes ezberdinak elkarri josteko helburuan, falange bakoitza akzio-elkarte gisa irudikatzen zuen Fourierrek. Falansterioak kapital jabeen eta langileen borondatezko elkar-egintzaren bidez eratzen ziren. Lehenek kapital-ekarpena egiten zuten, eta bigarrenek beren lan-ahalmena ekartzen zuten proiektu partekatura. Luzera, falansterioak aurrera egin ahala, langile ekoizleak, maila batean ala bestean, akziodun bilakatzea zen egitasmoaren helburua, bazkide oro kapital-ekarpena eginez proiektuaren jabe bilakatzen zela ziurtatuz. Baina Fourierren sisteman emaitza ekonomikoaren banaketa ez zen berdintasun-irizpideen arabera egiten. Haren ikuspegian, onura kolektiboaren eraikuntzan ekarpen desberdindua egiten zuten giza talde ezberdinek, eta bidezkoa zen emaitzen banaketan hori aitortzea. Horrela, ekoizpen-lan arruntari emaitzen bost hamabirenak zegozkion, kapitalari emaitzen lau hamabirenak, eta talentuari –gerentzia- edo zuzendaritza-egitekoei zegozkienak– emaitzaren hiru hamabirenak. Etekinen banaketaren formula orekatua eta bidezkoa asmatu zuela ziurtatzen zuen Fourierrek.

Zalantzak gorabehera, Fourierren planteamenduak bertute garrantzitsuak ditu. Langileak jabekide interesdun bilakatzeko proposamena aurrekari garrantzitsua da kapitalismoaren soldatapeko lan-eredutik kooperatibek ezarriko duten lan elkartuko eredura igarotzeko norabidean. Gainera, sufragio unibertsalaren printzipio demokratikoa proposatu zuen falangearen zuzendaritza hautatzeko, langileen parte hartzeko aukerak ordura arte irudikatu gabeko dimentsio berrietan zabalduz. Gide eta Risten hitzen arabera:

5. FOURIER ETA FOURIERISTAK

«Langileak ez du soilik lan-ekarpenaren arabera parte hartzen mozkinetan, kapital-ekarpenaren arabera ere parte hartuko du, akzioduna izango baita; eta, agian, baita bere talentuaren arabera ere, bazkidea izanik hautagaia ere bai baita».

Baina, Owenek kapitalaren sari gisa interes finko eta mugatua proposatzen zuen bitartean, Fourierrek kapitalaren irabazi aldakorraren eskubidea onartzen zuen. Hau da, kapitalari ordaindu egiten zaio, ez interes mugatu eta finko baten bidez, baizik eta, enpresa kapitalisten irizpideen antzera, falansterioaren jardueraren emaitzarekiko proportzioan. Hemen aurkitzen da doktrina kooperatiboaren ikuspegitik talka nagusia.

Paul Lambertek, Fourierren planteamendu horiek testuinguruan jarriz, haren egitasmoaren xede nagusiei erreparatzeko eskatzen digu. Fourierren kapitalaren formulazioa ulergarria da haren sistemaren jomuga ez zelako, horrenbeste, aberastasunaren banaketari eta justizia sozialeko aferari konponbidea ematea, nola ekoizpenaren antolaketaren nolakotasunari konponbidea aurkitzea. Gogora ekar dezagun Fourierren proposamenaren akuilu nagusia giza naturak berezkoak dituen desiren eta grinaren oinarrian eraikitako gizarte-antolamendua eratzea zela. Ikuspegi hori indartu baino ez da egiten haren planteamenduaren bigarren zutoin nagusiari arreta jarriz gero: lan erakargarria.

5.2. LAN ERAKARGARRIA

Fourierrek defendatzen zuenez, lana era egokian antolatuz gero, ezarritako betebeharra izateari utzi eta zeregin atsegin eta erakargarri bilaka zitekeen. Lanaldia sentsualitatearen une eta espazio bihurtzea zen Fourierren sistemaren beste asmo nagusia. Norabide horretan, lan-irizpide berriak proposatu zituen. «Serie»tan edo «talde funtzional»etan antolaturiko lanaren banaketa espezializatua irudikatu zuen. Falansterioetan, langile eta

5.1. Falansterioen sistema

5.2. Lan erakargarria

bazkideek, beren lehenetsuen eta gaitasunen arabera, nahi zuten taldeetan parte hartzeko aukera zabalik zuten; horrela, zereginak eta funtzioak aldatzeko eta trukatzeko bidea errazten zen, eta zeregin bakarrean garatzen ziren lan-saio luze eta aspergarrien monotonia saihestu egiten zen.

Horrez gain, Fourierrek lan erakargarriaren baldintzak zehaztu zituen: lan-gile oro bazkidetu eta, soldatapeko saria ekidinez, dibidenduaren arabera ordaintzea; pertsona oro (gizon, emakume edo haur) saritzerakoan, hiru ahalmenen proportzioak aintzat hartuz egitea, hots, kapitalaren, lanaren eta talentuaren proportzioen arabera; lanaldi industrialen zereginak egunean zortzi bat aldiz aldatzea, nekazaritza- edo manufaktura-jardueretan ezinezkoa baita gogoari ordu eta erdi edo bi ordu baino gehiagoz eustea; lana berez bildutako kideen lagunartean garatzea, norgehiagoka positiboek kitzikatuta eta estimulatuta; tailerrek eta laboreek dotoreziaren eta garbitasunaren erakargarritasuna izan zezatela; lanaren banaketa antolaketa-maila gorenaren baitan garatzea, sexu eta adin bakoitzak komenigarriak zaizkion funtzioak bete zituzan; eta, banaketa horretan, gizon, emakume eta haur orok, prestutasuna eta gaitasuna aurrez justifikatuta, edozein sail edo «adar»retan lan egiteko aukera-eskubidea mantentzea. Ezaugarri horien oinarrian, Fourierrek, ekonomia-eredu konbentzionalaren aldean, elkarte-ekonomiaren nagusitasuna aldarrikatzen zuen. Produktiboagoa izatera ere iritsi zitekeen, alor bakoitzean pertsonen ezagutza askotarikoak bil zitezkeelako, eta aurreko belaunaldiek metatutako jakituria xurgatzeko prestutasuna izango zuten talentudun pertsona multzoa presta zezakeelako.

Bestalde, sistema industrialaren konplexutasuna sinplifikatzeko eta murrizteko, bizimodu simple baten aldarria egiten zuen. Sistema horrek pertsonen energia xahutzea eragiten zuen, etengabe gauzak egiteko, fabrikatzeko eta merkaturatzeko sukar horrekin. Pertsonen zorionari lagundu beharrean, gogaitu eta nekatu egiten zituen, uneoro oinarri errealik gabeko beharrianak elikatuz. Bizimodu sinpleak beharrezko lan kopurua murriztea eragingo zuela pentsatzen zuen, oinarririk gabeko kontsumoa ezabatzea eta oihal eta altzarien moduko gauzen iraupena ziurtatzea. Hortaz, industriaren ahalmenen aurrean Owenen sistemak azaldutako liluraren aldean, Fourierren sistemak nekazaritza-eredua lehenesten zuen industriaren gainetik.

5. FOURIER ETA FOURIERISTAK

Lau mila gutun inguru idatzi zituen Fourierrek, bere sistemaren xehetasunak azaldu, eta pertsona boteretsu, aberats eta eragin handikoren baten interesa erakartzeko. Emaitzarik ez zuen izan, ordea, ahalegin horrek. 1820ko hamarkadan batu zitzaizkion jarraitzaileak arduratu ziren bere ideiak zabaltzeaz, eta, Fourier hil ostean, hainbat esperientzia garatu zituzten. Berrogeitik gora dira haren ideien inspiraziopean martxan jarritako ekimenak. Estatu Batuetan, Hego Amerikako eskualde batzuetan eta Europako hainbat herritan egin ziren saiakerak. Jarraitzaileen artean, besteak beste, Victor Considerant nabarmentzen da, haren doktrinaren hedatzaile nagusia izan baitzen, eta Texasen falansterioen irizpideen gainean eraikitako esperientzia garatzen saiatu baitzen. Considerant 1848ko iraultzaren osteko Asanblea Nazionalako kide hautatu zuten, eta aurrerago ikusiko dugun Louis Blanc buru izan zuen «Lanaren Batzorde»ko partaide izan zen. Britainia Handian Hugh Doherty-ren izena gailentzen da, zeinak Fourierren lanak itzuli eta *The Morning Star* egunkaria sortuz haren ideiak zabaltu baitzituen. Espainiako estatuan zirkulu fourierzale esanguratsuak ere izan ziren. Fourierren doktrinak izan ziren, Saint Simonenekin batera, 1830eko hamarkadan Estatuan zabaldu ziren lehenengo doktrina sozialistak. Joaquin Abreu, hirurteko iraultzailean Tarifako alkate izan zena, eta 1823an Frantzia erbesteratua, Fourier pertsonalki ezagutu eta falansterioen esperientzietako batean parte hartutakoa da. Fernando Garrido ere, Espainiako irakurleei Rochdaleko aitzindarien printzipioak eta historia lehen aldiz zabaldu zizkiena, Fourierren ideien zalea izan zen.

Aipamen berezia, dena den, Andre Godinek merezi du, Guisa-n (Frantzia) garatu zuen enpresa-esperientziagatik. Langile-jatorriko industrialari honek, 1859an hasi eta 1968 arte iraun zuen «familisterioa» sortu zuen berokuntza-aparatuak ekoizten zituen bere jabetzako lantegiaren inguruan. 2.000 pertsona inguruko langile-familiak etxebizitza higienikoak, eskolak, antzokia, kafetegiak eta liburutegiak zituzten bertan. Kontsumo- eta ekoizpen-kooperatibak ere sustatu zituen Fourierren ideien zale honek. Lana «serie»tan antolatzen eta langileei taldeak osatzeko aukera zabaltzen saiakera berritzaileak egin ziren. Baita tailerreko buruak hauteskunder zabaldu eta soldaten arauak langileen bozkaz zehazteko bideak zabaldu ere.

5.3. FOURIERREK ETA FOURIERISTEK EREDU KOOPERATIBOAREN SORRERARI EGINDAKO EKARPENA

Fourierren kooperatibismoaren aitzindari izaera zalantzan jarri izan da hainbatetan. Ordainsari aldakorraren printzipioa onartuz, kapitalari dagokion emaitzetan parte hartzeko aitortzen zitzaion eskubidea da, zalantzarik gabe, doktrina kooperatiboaren ikuspegitik mesfidantza handien sortzen duen atala. Egia da, halaber, Fourierren ekarpena balioan jartzeko ariketa, aztertzen ari garen gainerako aitzindariaren aldean, zailagoa dela, haren pentsamendua konplexuagoa baitzen, bere planteamenduek sistema kooperatiboaren fokua gainditzen zuten heinean. Horri guztiari gehitzen zaio Fourierren sistemaren xehetasunetan xeblekeriatzat jotako ideia bitxiak ere jasotzen zirela, eta horiek bere teoriaren sinesgarritasuna lausotzen dutela. Baina, Colek argitu bezala, bitxikeriak baztertu eta bere teoriaren muineko ataletan arreta jarriz gero, pentsalari sozial serio bat aurkituko dugu, balio iraunkorra izango duten ekarpen esanguratsuak egin zituena, ez soilik sozialismoaren eta kooperatibismoaren pentsamenduari dagokionez, baizik baita lanaren antolaketarekin loturiko giza harremanen eta estimuluen aferari dagokionez ere.

Fourier garaiko testuinguruan ulertu behar da. Hori eginez gero, eta bere proposamenen alderdi nuklearrak kontuan hartuta, Mladenatzek dioen bezala, doktrina kooperatiboaren eraikuntzari Fourierrek eginiko ekarpen esanguratsuak hautematen dira. Gidek eta Ristek falansterioen eta lankidetza-sistema integralen arteko paralelismoa azpimarratzen zuten, eta, Mladenatzek, ildo berean, Israeleko Kibutz ereduarekiko paralelismoa. Falansterioak, Owenen kooperazio-herrixken antzera, bere kideen beharrazanei bideraturiko enpresak dira. Komunitate-denden proposamenak ere aipamen berezia behar du. Falansterioen eraketaren trantsizio-bide moduan proposatu zituen Fourierrek. Bitartekariak desagerraraziz eta

5. FOURIER ETA FOURIERISTAK

merkatariak eskuratzen zituzten etekinak ezabatuz, norbanakoei preziorik merkeenean era guztietako kontsumo-gaiak eskura jartzeko proposatu zituen horiek Fourierrek. Kontsumo-kooperatibek, gerora, beren gain hartuko dituzten funtzioak aurreratu zituen, horrela, Fourierrek.

Enpresaren emaitzen banaketan, kapitalaren etekin aldakorraren printzipioa bere horretan utziz, Fourier kooperatibismoaren kontzepzioetik urrundu egiten bada ere, bereziki kontuan hartzekoak dira etekinetan langileen parte-hartzea bideratzeko egin zituen proposamenak, onura kolektiboari egiten dioten ekarpen pertsonala aintzat hartuz. Bestalde, akzioak erosi eta langileak enpresaren jabekide bihurtzeko formulak soldatapeko lanaren eredia gainditzen lagundu zuten, lan elkartuko kooperatibek geroago garatu zituzten formulazioak aurreratuz. Fourierrek, gainera, gizarte-berdintasunaren bestelako ikuspegi bat plazaratu zuen. Onura komunaren sorkuntzan partaideek egindako ekarpen ezberdinak aintzat hartzeko bideak zabaldu zituen. Lan kopuruaren eta lanaren kualifikazio bereizietatik eratorritzen zen ekarpen desberdinduaren arabera ordainsariak proposatu zituen. Ikuspegi hori, geroago, bere egin zuen kooperatiba-mugimenduak.

Argudio ugari dago, beraz, Fourier kooperatibismoaren aitzindarien artean kokatzeko. Doktrina kooperatiboa aztertu duten egileen artean, dena den, Paul Lambert izan da Fourierren ekarpena gehien nabarmendu duenetakoa. Haren ustez, kooperazioaren nozioaren gurasotasuna Fourierri eta Oweni zegokien. Fourierren kasuan, hiru arrazoi nagusi nabarmentzen zituen. Lehenik, Fourier izan zen salgaien merkatuaren inperfekzioek kontsumo-gaien kostuan zuten eraginaz hausnartu zuen lehen erreformatzaileetako bat, eta ondoren garatuko ziren formulazio kooperatiboak aurreratuko zituena. Bigarrenik, Fourierrek, sufragio unibertsalaren bidez zuzendaritza-arduradunak hautatzeko irizpidea ezartzerakoan, argiki, kooperatiben funtzionamendu demokratikoaren printzipioaren aurrekaria finkatu zuen. Hirugarrenik, Owen baino askoz ere era argiagoan, Fourier «borondatezko elkartzearen printzipioaren apostolua» da Paul Lambertek ustean.

Azken ezaugarri horren haritik, aintzat hartzekoak dira Fourierren pentsamoldearen ekarpen original batzuk. Owenen ikuspegian, pertsonen izaera

5.3. Fourierrek eta fourieristek eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena

eralda zitekeen inguruneko gizarte-baldintzetan eraginez. Fourierrek, aldiz, giza izaera bere horretan onartzeko eta pertsonen desirak eta grianak aitortzeko egiten zituen aldarrikapenekin, emantzipazio kolektiboko prozesuetan subjektuaren zentraltasuna errespetatzeko premia are handiagoa azpimarratzen zuen. Horrela, Owenek kapitalaren eskubideak mugatzean enpresaren funtzio sozialaren kontzeptio berri baterako oinarriak ezartzen baditu, Fourierrek horri gehitzen dio enpresa komunak norbanakoaren nahiak eta motibazioak aintzat hartu behar izatearen premia, ondare komunari ekarpena egiteko prozesuak, berez eta bere baitan, erakargarria eta desiragarria izan beharra duela azpimarratuz. Lanaren inguruan duten ikuspegi desberdinean islatzen da hori guztia. Owenen ikuspegitik, langileek ondo eta zoriontasunez lan egin zezaten nahikoa zen lanaren zentzu moral indartsu baten inspirazioa, ongizate komunaren eraikuntzan egiten zuen ekarpenean oinarritua. Fourierrentzat, ordea, funtsezkoa zen lanaren prozedura bera ere langileentzat atsegina, motibagarri eta aberasgarri bilakatzea.

Fourierren ikuspegiak, hortaz, eraldaketa-proiektu kolektiboetan interes eta motibazio indibidualek eduki beharreko lekuaz hausnartzera garamatza. Ereduko kooperatiboaren afera da hori bete-betean: interes indibidualaren eta kolektiboaren arteko orekan egitasmoa garatzen asmatzea. Kooperatibismoaren muineko ezaugarria da perspektiba kolektibistek dituzten ideologiekiko (komunismoa edo estatu-sozialismoa kasu) aldea azpimarratzera daramana. Izan ere, ikuspegi kooperatiboetatik kritika egiten zaie beste ideologia-ikuskerari horiei, pertsonak bere baitan helburu baino helburuak lortzeko instrumentu gisa ikusten dituztelako, eta asmo handien mesedetan subjektuen ikuspegi autonomoa, inizatiba librea eta interes propioa azpiraturik gelditzen direlako. Kooperatibismoak langile bakoitzari deia egiten dio askapen-bidearen ardura bere gain hartzeko; ez baitago emantzipazio-biderik norbanakoaren erantzukizun libre eta kontziente barietatearekin. Bide hori, gainera, langile eta herritar normal eta arruntekin egin beharrezkoa da, ez soilik ideologiaren suhertasunak blaiturik zeharo altruistak diren pertsonekin; eta, hortaz, bereziki garrantzitsua da, proiektu kolektiboaren eraikuntzan, pertsonaren hazkundea eta garapena ziurtatzea. Filosofia hori guztia dago kooperatiben «Borondatezko elkartzearen printzipioa»ren oinarrian, eta horixe bera da Fourierrek marrazten lagunduko duena.

5. FOURIER ETA FOURIERISTAK

Baina, Fourierren ekarpena ideien eremura mugatzen da. Gauzaren praktikoa, eredu kooperatiboarekin duen harremana zeharkakoa baino ez da. Haren jarraitzaileak arduratu ziren ideiak praktika zehatzetan egikaritzen. Nagusiki, fourierista «disidente»ek, falansterioen eraketan katramilatu gabe, jarri zuten fokua Fourierren ideien alderdi egingarrietan. Guztien artean, Michel Derrion-en izena nagusitzen da. Ingalaterran King dokto-reak egin bezala, Derrionek ere langileen kontsumo-ahalmenean ikusi zuen eraldaketarako bidea. Asmo horrekin, 1835ean Lyonen, *Le commerce veridique et social* izeneko kooperatiba-izaerako denda zabaldu zuen, ondasun pertsonalak inbertituz eta borondatezko harpidetzak sustatuz. Martxan jarritako sistema horretan, irabazien laurdena bazkide kontsumitzaileei bueltatzen zitzaien egindako erosketen proportzioan, irabazien erdia kapitalaren, gerenteen eta enplegatuen ordainsari aldakorretara bideratzen zen, eta azken laurdena funts soziala indartzeko erabiltzen zen. Funts horren erabilera demokratikoki erabakitzen zen, eta kooperatibaren hedapen azkarra ahalbidetu zuen, denbora gutxian, zazpi denda berri ireki baitziren. Esperientzia horrek ez zituen hiru urte baino gehiago iraun, 1836an Lyon kolpatu zuen krisi ekonomikoaren testuinguruan erori baitzen, baina eredu kooperatiboaren oinarriak finkatzeko prozesuan erreferentzia garrantzitsu horietako bat bilakatu zen.

5.3. Fourierrek eta fourieristek eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena



6

PHILIPPE BUCHEZ

The background is a solid light pink color. Overlaid on this are several sets of thin, parallel pink lines that curve and flow across the page, creating a sense of movement and depth. These lines are most prominent on the left and bottom edges, curving towards the center.

6.1. Buchezek eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena

6. PHILIPPE BUCHEZ

Philippe Buchezek (1796-1865) toki berezia du eredu kooperatiboaren sorreraren kontakizun honetan. Produkzio edo lan elkartuko kooperatiben sustatzaile nagusia da, inolako zalantzarik gabe. Kooperatibismoaren historian Frantzia lan elkartuko kooperatiben sorlekutzat hartzen da, eta hori, Buchezek lehendabizi eta Louis Blancen ondoren, egindako ekarpenaren ondorioa da.

Buchezen bizi-ibilbidea eta emari intelektuala zabala izan zen. XIX. mende hasierako oldarraldi liberalaren testuinguruan, Frantziako *Charbonnerie* elkarte sekretua sortu eta 1825ean atxilotu egin zuten gobernuaren eta erregearen aurka konspiratzeagatik. Ondoren, Saint-Simonen aldekoekin bat egin zuen, *Le Producteur* egunkarian artikulua argitaratuz. Sinesmen katolikoetan erroturik, Saint-Simonen eskolak bere egin zituen ikuspegi panteistekiko deseroso, aldendu egin zen korrante horretatik 1830 urte inguruan. Orduan egin zuen langileen elkartegintzaren aldeko hautu irmoa, sinetsirik bide eraginkorrena dela giza garapena, berdintasuna, sendetasuna eta antzeko printzipio kristauetan oinarrituriko gizarte-eredu berria eraikitzeko. Norabide horretan, 1831n *Journal des sciences morales et politiques* publikazioa –gero *L'Européen* bilakatuko zena– sortu zuen, eta, bere eraginpean, 1840an *L'Atelier* egunkaria sortu zuen, denak eragin handikoak Pariseko langileen giroan, eta garrantzi handikoak, beraz, langileen elkartegintzaren irizpideak sustatzeko. 1848ko iraultzaren osteko Asanblada Nazionalako ordezkari hautatu zuten, eta, une labur batez izan bazen ere, Asanbladako lehendakari izan zen. Errepublika garaiturik, bizi-modu pribatura erretiratu eta hainbat lan idazten aritu zen.

Ereduko kooperatiboaren aitzindarien artean Buchezi leku nabarmena bada-gokio, besteak beste, *Journal de Sciences morales et politiques* aldizkarian 1831n idatzi zuen artikulua da. Bertan, asoziazionismoaren ikuspegiak eta produkzio-kooperatiben oinarritzko printzipioak azaldu zituen. Kooperatibismoaren sorreraren historian gogoan hartu beharreko idazkia da, hortaz. Artikuluan, Buchezek baieztatzen zuen langile-klaseen miseriaren arrazoiak lehia askearen erregimenean eta soldatak murrizteko duen be-rezko joeran zeudela:

«Leku desberdinetako merkatarien arteko borroka industria-buruak behartzen ditu salmentan jarritako prezioak etengabean murriztera, hori baita lehia bere alde lerrokatzeko duten aterabide bakarra. Eraitza hori bi bideetatik bakarrik lor daiteke: bata soldaten jaitsiera da, eta, bestea, makinaren erabilera. Azken horren ondorio da, egunero, langile kopuru jakin baten desplazamendua, haren besoek erabilgarri izateari utzi baitiote asmakizun berria sartzearen ondorioz. Bizi ahal izateko, langile horiek edozein preziotan bilatzen dute lana, halako moldez non aukera ematen baitiote industria-buruei soldatak jaisteko, sari txikiagoa onartu nahi ez duten mendekoen orde, gosez edozer gauza onartzeko prest leudekeen langileak jarritz».

Joera hori geldiarazteko, nagusien eta langileen arteko bereizketa desagerrarazteko eta langile-klaseak apurka askatzeko, Buchezek bi bide osagarri proposatzen zituen: antolaketa eta elkartegintza. Garaiko lanaren antolamenduak erakusten zituen ezaugarrien oinarrian egiten du planteamendu hori. Izan ere, bi kolektibo nagusi identifikatzen zituen langile-klasearen baitan. Alde batetik, langile «libreak» zeuden, artisauen eta langile kualifikatuen multzoekin pareka zitezkeenak. Horien lanbideak prestakuntza-prozesu luzea eskatzen zuen, eta haien lanaren ezaugarriak ziren trebetasuna eta, ekoizpen-tresna handiegirik behar ez zuten, tokiz erraz aldatzeko aukera. Beste aldean, manufaktura-fabriketako langileak zeuden, kualifikatu gabeko lana egiten zuten, enpresaburuak jarritako makinaren menpe lan egitea beste erremediorik ez zutenak.

Buchezek «elkartze bidezko lan-sistema» proposatzen zuen lehen taldeko langileentzat. Fabrikako lanaren kasuan, ezinezkoa iruditzen zitzaion sistema hori bera zabaltzea. Batetik, jabeak fabrika osatzen zuen kapitalaz gabetzea ezinezkoa zelako; bestetik, ez zelako posible industria-langilearen komunitateak beharrezko kapital soziala eratzea; eta, azkenik, Buchezen ustez arrazoirik pisutsuena, fabrikako sisteman ezinezkoa zelako ekoizpen-zeregina lana antolatzeaz arduratzen zen enpresaburuaren zereginetik bereiztea. Fabrikako sisteman, batetik, sindikatuen antolaketa eta, bes-

6. PHILIPPE BUCHEZ

tetik, langileen eta ugazaben ordezkarietarako osaturiko kontseilu paritarioak eratzea proposatzen zuen. Azken horiek, gobernu-komisario batek lagunduta, beren gain hartuko zuten soldatak finkatzeko ardura.

Lehen taldeko lanbideetan, hau da, artisau eta langile kualifikatuen taldean, enpresaburuak lanaren eskaria egiten eta lan egiten zutenen arteko bitartekari kapitalista gisa esku hartzen zuen. Lantokiaren lokalaren jabe eta lehengaien hornitzaile baino ez zen; ordainetan, langileen lanaren balioaren zati bat berarentzat deskontatzen zuen, eta merkatuan produktuen salmentaren etekinaz jabetzen zen. Horrela, bada, Buchezen hitzetan:

«Ekoizten duen langilearen eta lana enkargatzen duenaren artean aipatuko bitartekariaren presentziaren ondorioa da, alde batetik, langilearen irabaziaren murrizketa (herena baino txikiagoa ez den deskontuaren eraginez), eta, bestetik, kontsumitzaileek lukurreriazko balio bat ordaindu behar izatea. Enpresari horiek bizkarroi hutsak dira; erabilgarritasunik gabeko esku hartzea ekoizlearentzat eta eroslearentzat hondagarria da, eta, hala ere, hain da garestia, ezen oso gutxitan uzten baitiote dirutza handi edo txiki bat eskuratzeari».

Buchezek ekoizpen-langileen elkartea aurkeztu zuen bitartekari kapitalistak desagerrarazi eta langile-klasearen egoera hobetzeko sistema gisa. Lan-elkarte horien oinarriak eta printzipioak ezarri zituen:

1. Langile bazkideak enpresari bilakatuko lirateke; bide horretan, haien artean elkarrearen ordezkari izango luketen kide bat edo bi hautatuko lituzkete.
2. Langile horietako bakoitzak lanbidean ezarritako ohituren arabera soldata jasotzen jarraituko luke; hau da, lanaldiaren edo zereginaren arabera eta, betiere, bakoitzaren trebetasun-maila aintzat hartuz.
3. Enpresaburu bitartekariak lanaldi bakoitzean deskontatzen duten kopuruaren baliokidea erreserban gordeko lituzateke. Urtearen amaie-

ran, irabazi garbia izango litzatekeen zenbateko hori era honetan banatuko litzateke: ehuneko hogeit bat kapital soziala osatzeko eta handitzeko; gainontzekoa, sorospenetarako erabili edo, egindako lan-ekarpenaren arabera, bazkideen artean banatuko litzateke.

4. Kapital soziala, urtero etekin bostena gehituz handituz joango litzatekeena, besterenezina izango litzateke; elkararena izango litzateke, disolbaezina izango litzatekeen elkararena, ez norbanakoek bertatik baja hartu ezingo luketelako, baizik eta kide berriak etengabe onartuz elkar hori betikotu egingo litzatekeelako. Horrela, kapitala ez litzateke inoren jabetzakoa izango, eta ez litzateke, inondik inora, herentziaren legeen mende geratuko.
5. Elkarrekin ezingo luke beren kontura ari diren kanpoko langileen jarduna urtebete baino gehiagoz luzatu; denbora hori igarota, elkarrekin baita onartu behar luke eragiketen gehikuntzazatik beharrezko bilakatutako langile berrien kopurua.

Buchez ziur zegoen lan-elkarrekin horien bideragarritasunaz. Oztopo erabakigarri bakarrak finantziarioa eta kreditu-arazoa ziren. Kalkulatzen zuenez, 5.000 liberatakoa zen hasteko beharrezkoa zuten kapitala: lehengaiak, lan-tresnak, lantokia eskuratzeko eta, gauzaturiko lana egiaztatu eta ordaina jaso bitartean, langileen soldadak aurreratzeko. Afera horri soluzioa emateko, Estatuaren banku-sare bat eskatzen zuen, eta, halakorik ezean, funts filantropikoen inplikazioaren bidez sortutako ordezkari instituzioen bat.

Printzipio eta oinarri horien gainean, Buhezek ekoizpen-langileen bi elkarrekin sustatu zituen. Lehena arotzena izan zen, 1832an sortua, baina laster amaitu zena. Bigarrena bitxigileena, *l'Association chretienne de bijoutiers en dore* izenekoa, 1834an sortua, eta arrakasta handiagoarekin 1834ra arte iraun zuena, Parisen zortzi sukurtsalekin lan egitera iritsi zelarik.

6.1. BUCHEZEK EREDU KOOPERATIBOAREN SORRERARI EGINDAKO EKARPENA

Buchez produkzio edo lan elkartuko kooperatibismoaren aitzindaria da. Nabarmena da eredu horren sorreran izan zuen eragina. Rochdaleko kooperatiba baino hamar urte lehenagokoa da berak, arrakastaz, sustatu zuen kooperatiba-esperientzia. Haren sustapen-lana zabalagoa ere izan zen. 1848ko Frantziako Iraultzatik sortutako Bigarren Errepublikan, Batzar Nazionalaren baitako batzorde baten buru zelarik, hiru milioitako funtsa bideratu zuen ekoizpen-langileen elkarteak sortzeko. Diru-laguntza jasotzeko, langileen elkarte horien estatutuek ziurtatu beharra zeukaten irabazien zati bat erreserba funts iraunkor eta banaezina handitzeko erabiliko zutela.

Baina alderdi praktikoan baino gehiago, printzipioen lanketan izan da bereziki garrantzitsua Buchezen ekarpena. Lan elkartuko kooperatiben adituen artean daude Buchezen ekarpenaren baieztapen esplizituenak. Dionisio Aranzadiri, adibidez, ikaragarriak iruditu zitzaizkion Buchezen oinarrien eta printzipioen argitasuna eta etorkizuneko bisioa; printzipio horien indarra, lan elkartuko kooperatibentzat ez ezik, kooperatibismo osoarentzat ikusten zuen baliagarri. Ildo berean, Monzonek azpimarratzen duenez, Buchezek idatzitako printzipioetan jada jasota daude lan elkartuko kooperatibaren eta mugimendu kooperatiboaren arau esanguratsuenak. Era berean, nabarmentzen du 13 urte beranduago idatziko diren Rochdaleko estatutuak Buchezek marrazturiko ikuspegi oso antzekoetan oinarritu zirela.

Ez da gutxiagorako. Izan ere, agerikoa da Buchezen adierazpenean egina dagoela eredu kooperatiboaren ezaugarritze oinarritzkoa: enpresa, kapitalaren inizatiba baino gehiago, lanaren elkarte-ekintza moduan eratzten da, eta jabetza, ondorioz, langileena da. Bide horretan, soldatapeko lana ezabatu egiten da, urtebeteko epean, eta ekoizpenaren gehikuntzagatik

6.1. Buchezek eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena

baturiko langile berriak lan elkartuko bazkide bihurtu beharko dira. Langile bazkideen artean demokratikoki hautatzen dira enpresako ordezkariak. Eta irabaziak langileen artean banatzen dira, lanaldiak eta lanaren nolokotasuna aintzat harturik.

Baina Buchezen ekarpenik esanguratsuena eta originalena erreserba-funts banaezinen proposamenarekin loturik dago. Irabazien ehuneko hogeia enpresaren kapital soziala handitzera bideratzen da. Horrela, kapital komun edo kolektibo bat eratzen da, elkartearena dena baina ez bazkideena, eta betikotu egiten da, bazkide berriak onartuz, elkartea berriro ahala. Buchezek adierazten zuenez, kapital funts horrek berebiziko garrantzia du. Kapital-funts komun hori da, haren ustez, kooperatiba izaerako enpresen bereizgarri nagusia, eta kapital hori da, baita ere, eraturako ekoizpen-langileen elkarreak langile-klasearen interes orokorrekiko leial mantentzearen bermea. Hala adierazten zuen Buchezek berak:

«Kapital sozial besterenezina eta banaezina eratzea eta handitzea da, agian, elkartzearen gauzarik garrantzitsuena; horri esker sortzen dute horrelako elkarreak langile-klaseentzako etorkizun hobe bat. Elkartea beste modu batera antolatuko balitz, beste edozein merkataritza-konpainia bezalako litzateke; hots, probetxuzkoa soilik sortzaileentzat, eta kaltegarria hasieratik haren parte izan ez diren guztientzat; lehenen eskuetan, bitarteko esplotazio bat bihurtuko litzateke».

Erreserba-funts banaezinen mekanismoaren bidez, Buchezek ekoizpen-langileen elkarten arrisku bikoitza saihestu nahi zuela ulertzen du Lambertek: lehenik porrot egitea, baina, bestetik, baita arrakastaren ondorioz men egitea ere. Izan ere, aberasteak mozkin-grina piztu zezakeen ekoizleen elkartea sortu zutenen artean, eta, bide horretatik, langile-klasearekiko elkartasun-zubiak ahultzea eta irabazi asmoko ohiko enpresen jokabidea barneratzea. Bazkideen artean banaezina izango den kapital soziala sortzea, langile berriak urtebeteko epean bazkidetzeko konpromisoa, eta kooperatibaren ateak bazkide berriak hartzeko zabalik egotea, irabazi-asmoaren gainetik, kooperatiba-elkarten bokazio eraldatzailea

6. PHILIPPE BUCHEZ

ziurtatzen duten mekanismoak dira. Hiru printzipio horiek elkarrekintzan, kooperatibaren ondasunak, unean uneko bazkideen onura pribaturako baino, langile-klasearen emantzipazioan aurrera egiteko bitarteko izatearen berme dira. Kooperatiba, horrela, ez baita soilik bazkideena, baizik baita etorkizun hurbilean proiektuaren parte izango direnena ere. Horixe, hortaz, Buchezen intuizio bikaina.

Agerikoa da Buchezek mugimendu kooperatiboaren ondorengo garapenean utzi zuen arrastoa. Haren eragina erabakigarria izan zen Frantzian eta Europan lan elkartuko kooperatibek ezagutu zuten garapenean. Bestalde, Buchezen doktrinaren inspirazio zuzenez eratuko da Britainia Handian sozialista kristauen mugimendua, 1850eko hamarkadan lan elkartuko kooperatiben sorrera bultzatzen eta horien produktuak merkaturatzeko biltegiak irekitzen zeresan handia izan zuen antolakundea. Azkenik, erreserba-funts banaezinen ideia bereganatu zuten Louis Blancen Frantzian, Raiffeisen-ek Alemanian eta Rochdaleko esperientzia kooperatiboak berak Britainia Handian. Eta baita garapen berriak eman ere, erreserba-funts banaezinen metaketak, kooperatiba jakin batetik harago, kapital gero eta handiagoak langile-klasearen mesedetan jarritz, aukera berriak zabaltzen zituela frogatuz.

6.1. Buchezek eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena



7

LOUIS BLANC





7.1. Louis Blancen eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena

7. LOUIS BLANC

Kooperatibismoaren aitzindarien begiratu amaitzeko, Louis Blancen (1812-1882) ekarpena aztertzea falta zaigu. Buchezen eta Fourierren aldean, Frantzia ekoizpen-langileen elkarteei eman zien bultzada politiko eta praktikoagatik nabarmendu zen Blanc. 1848ko iraultzatik sortutako Bigarren Errepublikako gobernuaren kide izanik, ardura hori baliatu zuen langileen elkarte horiek sustatzeko. Blanc abokatu eta kazetaria zen ogibidez, baina ezaguna bada, nagusiki, langileen artean izan zuen eragin politikoagatik da. Asoziazionismoa bere programa politikoaren ardatz bilakaturik, pertsona erabakigarria izan zen ekoizpen-langileen elkarten ideia zabaltzen joan zedin.

Haren argitalpenetan agerikoa da XIX. mendearen lehen erdiko tradizio sozialista frantsesaren eragina. Aipatzen denez, ez zuen ekarpen berri eta bereizgarririk egin pentsamendu horren garapenean; bai, ordea, ideia horiek zabaltzen eta gizarteratzen. Korrante errepublikar-jakobinoen doktrina desberdinen eta garai hartan langileen artean agertzen joan ziren ikuspegi kooperatiboen sintesi koherentea egin eta zabaldu zuen. 1839an argitaratutako *Organisation du travail*, bere idazlan ezagunena, eztabaidagai bilakatu zen langile-inguruneetan, eta, Colek dioenez, Parisko langile gehienen gerra-oihu bihurtu zen.

Lan horretan eta 1848an argitaratu zuen *Socialisme: droit au travail* lanean agertzen dira Louis Blancen pentsamendu politikoaren ideia nagusiak. Gonzalez Amuchastegui sakon aztertu du Blancen pentsamendua, eta berak argitzen digunez, Blancen sozialismoaren kontzepzioaren oinarrian langileek jasaten zuten soldatapeko erregimena eta esplotazioa amaitzeko ahalegina dago. Estatuak finantzatutako kooperatiba-sistema baten bidez lortuko zen hori. Horretarako, noski, norbanakoen eskubide eta askatasunak errespetatuko lituzkeen estatua eratu behar zen aurretik. Blanc sinetsirik zegoen estatu demokratiko batek, demokratikoa izate hutsagatik eta gehien-goaren nahiak ordezkatzegatik, gizarte-erreformarekin konpromisoa hartu eta gizarte-eraldaketaren sustapena bere gain hartuko lukeela.

Louis Blancen pentsamendua kontzeptu nagusi batzuegatik nabarmen-tzen da. Liberalismoaren askatasun indibidualistaren eta lehia askearen doktrinaren kritika zorrotz batetik abiatzen da. Argudiatzen zuenez, prin-

tzipio indibidualista gailentzeak ez du eragin gizakiak askeagoak izatea, ez berdinoak izatea, eta ezta haien arteko harreman moldeak ahaide-tasunezkoak izatea ere. Askatasunaren bestelako nozio bat aldarrikatzen du, askatasun «erreal» eta askatasun «formala» kontrajarriz. Askatasuna, baieztatuko du, ez datza soilik aldarrikatutako eskubidean, baizik eta pertsonak bere gaitasunak garatzeko eskura duen botere-ahalmenean. Horrela, Blancen harreman estuan jartzen ditu askatasuna eta bere ahalmenak askatasunez garatu ahal izateko baliabideen jabetza. Izan ere, Blancen ulermenean, askatasuna ez da soilik oztopo normatiborik ez egotea; aitzitik, pertsonaren autodeterminazioa da, mundu espiritualean zein materialean, eta horrek, halabeharrez, bi eremu horien gaineko pertsonaren nola-halako domeinuren bat eskatzen du.

Liberalismoaren kritika are gehiago gogortzen du Blancen, lehia askearen doktrina jopuntuan duenean. Hainbat arrazoik bultzatzen dute horretara. Lehenik eta behin, ukatu egiten du askatasunaren eta lehia askearen artean liberalismoak egiten duen paralelismoa. Lehia askea, Blancen ustez, natura-egoeraren askatasuna besterik ez da, desberdintasunean oinarritutako askatasuna, lana enkantera ateratako merkantzia bihurtzen duena, eta, beraz, ahulak eta behartsuak aberatsen harrapakin erraz bihurtzen dituen; askatasun errearen eta ahalmenak garatzeko baliabide materialen ukazioa, azken finean. Bigarrenik, lehia askearen ondorioa da gizartearen ikuspegi atomistikoa, senidetasunezko gizarte baten antitesia, hortaz. Gizarte horretan, gizakiak beren baitara baztertzen dira, eta denak denen aurka dauden borroka-egoera nagusitzen da, enpresaburuen eta langileen artekoa, enpresaburuen artekoa, eta baita langileen artekoa ere. Azkenik, lehia askea ekonomiaren arrazionaltasun eza da. Desoreka-eragilea da, enpresaburuen etekin gosez ekoizpena etengabe handitzeko joera duena, baina jendartearen erosahalmena murrizten duena langileen arteko lehiak soldaten jaitsiera orokorra eragiten duelako. Estatuen kolonialismorako joera ere iturri horretan agertzen da. Finean, beraz, Blancen argi ikusten zuenez, lehia askeak langile-klaseentzat miseria fisikoa eta morala baino ez zekarren; burgesiarentzat, lehia krudelean murgiltzea, erabateko garai-penera edo desagertzera behartzen zituena; eta nazioentzat, barne- eta kanpo-gerra.

7. LOUIS BLANC

Blancen xedea zen indibidualismoaren printzipioa senidetasun-ikuspegiekin ordezkatzea, elkartzearen oinarrien gainean gizarte-egitura berri bat eraikiz. Elkarkidetzeta edo elkartegintza da, haren ustez, pertsonak etsaitasunetik senidetasunera igaro daitezten bidea, eta, lehiakide beharrea, kolaboratzaile gisa jarduteko modua. Elkartegintza eta indarren batasuna aldarrikatzen du interes orokorra gailendu dadin, sinetsirik baitago interes partikularren eta orokorren arteko osagarritasunean. Elkarkidetzeta, beraz, Blancen ikuspegian zera da:

«Printzipio bat, zeinaren arabera gizakiek isolaturik bizi eta, harrapakinak bailiran, aberastasunagatik eta bizitzagatik liskartu beharrea (hots, elkar suntsitu beharrea), borondateak batu eta elkarlanean jarduten baitute zeregin komun batean; gero, norbanako bakoitzak, bere ahalmenen arabera laguntzearen ordainetan, bere premiak eta beharrianak asetzeko beste jasotzen du».

Elkartegintzaren alboan, «lanerako eskubidea» ideia ardatzean gartzten da Louis Blancen proposamenaren bigarren zutabea. Fourierren eta haren dizipulu zen Victor Consideranten haria hartu eta, sendotasun teoriko berri bat emanez, ideia horren publizista eraginkorra bilakatu zen Blanc. Ideia sinple bezain indartsua zen: estatuaren erantzukizuna zen, arrazoizko ordainsari-baldintzak bermatuz, gaituriko hiritar ooren enplegua ziurtatzea.

Norabide horretan plazaratu zuen Louis Blancnek «tailer sozial»en bidez estatu sozialista bat eraikitzeke proposamena. Lan elkartuko kooperatiba ereduarekin loturak nabarmenak dira, jarraian ikusiko dugunez.

Blancen planteamenduan, tailer sozialak sistema ekonomiko berri baten oinarritzko zelulak dira. Praktikan, tailer soziala ekoizpen-langileen elkarte da, lanbide bereko langilez osatua, oinarri demokratikoetan oinarritzen dena, eta, horrez gain, industria handiaren eremuan jarduteko bokazioa duena. Estatuak esku-hartze garrantzitsua du proposamen horren garapenean. Hari dagokio, batetik, tailer horien hasierako finantziazioa mailegu

itzulgarrien bidez ziurtatzea, eta, bestetik, estatuaren zeregina da, baita ere, hasierako urratsetan eta langileek berek gaitasunak garatu bitartean, enpresaren zuzendaria izendatzea. Ondoren, prozedura demokratikoen bidez hautatutako langile bazkidez osaturiko batzorde batek hartuko luke zuzendaritza-ardura. Tailerrak eratzeko erabilitako kapitala interes finko eta mugatu baten bidez ordainduko da, denbora igaro ahala desagertzera joko lukeena. Kapitalak, hortaz, ez du irabazien banaketaren gaineko esku-biderik. Enpresaren irabazien banaketa irizpide zehatz batzuk jarraiturik egingo da: 1) Zati bat estatuak jarritako kapitalaren interesak eta mailegua itzultzeko erabiliko da. 2) Beste zati bat kideen artean banatuko da, haien soldataren osagarri gisa. 3) Irabazien hirugarren zati bat sorospen-funts batera bideratuko da, zahartzarorako, istripuetarako, gaixotasunetarako, eta krisian leudekeen tailer sozialei laguntzeko. 4) Gainerakoa, bazkideen artean banatu ezineko funtsa eratzeko eta handitzeko erabiliko da, bazkide berrien tresnak eskuratzeko, enpresa iraunarazteko eta tailer sozialen sistema hedatzeko. Ordainsarien irizpideari zegokionez, Blancek zereginen hierarkiaren arabera sistema mailakatua proposatzen zuen. Bere gogo eta itxaropena zen, ordea, langileen ikuspegi moralak goratu ahala, eta oparotasun-baldintzak hedatu ahala, berdintasun osoko irizpideak gailenduko zirela, zeinetan langile bakoitzak bere ahalmenen arabera produzitu eta bere beharren arabera kontsumituko baitzuen.

Bestalde, Louis Blancen egitasmoan, tailer sozialak ez ziren erakunde isolatuak, baizik eta ekonomia eta gizarte osoa barne hartzen zuen programa asoziazionista oso baten parte ziren. Haren buruan zegoen industriaren adar nagusi bakoitzean ahalik eta lasterren tailer sozial bat eratzzea. Programa, baina, ez zen industrian agortzen. Kontsumoa antolatzeke «estatuaren biltegiak» aurreikusten zituen, nekazaritzan teknika aurreratuenen bidez ustiapenez arduratuko lirakekeen nekazaritza-tailerrak eta -elkar-teak, eta finantza alorrean kredituaren erreforma sustatu nahi zuen ekoizpen-langileen elkarleen finantza-laguntzaz arduratuko zen estatu-banku bat sortuz. Hezkuntza ere bere egitasmoen artean zegoen. Tailer sozialen sistema hedatu ahala, derrigorrezko eta doako hezkuntza hedatuko litza-teke, berrikuntza pedagogikoari eta langileen erreforma moralari bideak zabalduz.

7. LOUIS BLANC

Louis Blancen sinesten zuen kooperatiba izaerako lantegi horiek sistema ekonomikoan nagusitu egingo zirela. Kapital-enpresen aldean, produktibitate-baldintza hobekak lituzkete, langileek azkar eta ondo ekoizteko motibazio argia luketelako. Eredua indartu ahala, gainera, baldintza hobekak izanik, industria alor bakoitzeko langile finenak erakartzeko ahalmena izango lukete tailer sozialek. Ageriko nagusitasun horren ondorioz, beraz, tailer sozialek enpresa pribatuak ordezkatzeko lituzkete, lehiaren erregimenari amaiera eman, eta elkarkidetzeta eta sendetasun oinarriko ordena berria ezarriz. Gidek eta Ristek bikain azaldu zuten Blancen pentsamenduaren alderdi hori:

«Gune partikular bakoitzean, enpresa pribatuak tailer sozial horien mehatxupean egongo dira; kapitalistek eta langileek berez eskatuko dute lantegi horien baitan xurgatuak izatea, horien abantailen onuradun izateko, eta, orduan, industria berekoak diren tailer sozial guztiak elkarrekin bakarrean batzea besterik ez da geratuko. Horrela, industria handi bakoitza tailer nagusi baten inguruan antolatuko da, eta haren mende saretuko dira gainontzeko tailer osagarriak. Eraikina borobiltzeko, industria ezberdinen arteko elkartasuna sendotzea baino ez da faltako; horiek, elkarren aurkako borrokan aritu beharrean, elkarri lagunduz, elkar sostengatuko dute krisi-garaietan».

Blancen gizarte-eraldaketarako egitasmoak hurrenkera argi bat jarraituz egiten du aurrera, hortaz. Enpresa pribatuak ekoizpen-langileen elkarrekin ordezkatzeko dituzte, industria-sektore bakoitzeko tailerrak multzokatu egingo dira, eta, jarraian, industria- eta nekazaritza-adar ezberdinak kontseilu nazional nagusi baten koordinaziopean berrantolatuko dira, jarduerak guztiak onura kolektiboaren mesedetan norabidetzen direla ziurtatuz.

Louis Blanc, Bigarren Errepublikaren gobernuan zuen arduraz baliatuz, ideia horiek guztiak garatzen saiatu zen. Bere eragin-ahalmena, baina, ahula zen doktrina liberalen aldekoek gehiengoa zuten gobernu batean. Errepublika demokratiko eta sozialaren aldeko Parisko talde iraultzaileen bultzadaz goratu zen Blanc gobernura. Frantzia gobernu-ardurak har-

7.1. Louis Blancen eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena

tzen zituen lehen sozialista zen. Bere egoera nahasia zen, ordea, gobernuan. Herri-presioa bere alde baliatuz, izaera sozialeko neurriak sustatuko lituzkeen Laneko Ministerioa sortzen ahalegindu zen. Ministerioa eratzetik lortu ez zuenez, gobernuan botere-ahalmen zehatzik gabe geratu zen Blanc. Ordainetan, gobernutik Luxenburgoko Batzordearen lehendakaritza eskaini zioten Blanci, Asanblea Nazionalean aurkeztu beharreko afera sozialeko erreforma-proiektuak prestatzeko. Hark ardura onartu egin zuen, bere programa asoziazionista garatzeko aukera emango ziola pentsaturik. Batzordearen bileretan, historian lehen aldiz, aristokraziako, enpresa-burgesiako eta unibertsitateko ordezkariekin batera, langileen antolakundeetako ordezkariak parte hartu zuten. Batzordeak hainbat lortu izan zituen, hala nola lanaldiaren murrizpena eta laneko azpikontraten debeku orokorra ezartzea; baina tailer sozialak orokortzeko ideia nagusia ez zegoen Batzordearen lortuen artean. Egoera ikusirik, eta tarteko bide gisa, Buchezekin harremanetan jarri eta langileek beren baliabidez ekoizpen-elkarteak antola zituzten saiatu zen Blanc. Bidea errazteko, gobernuaren kontratuak lortzen zituen elkarte horientzat. Sustapen-lan horretatik hainbat ekoizpen-elkarte sortu ziren. Horietan lehenengoa Guardia Nazionalaren uniformeak ekoizteko jostun langileen elkarteak izan zen, bi mila langile inguru batu zituen. Ondoren etorri ziren uhalgileen elkarteak eta iruleen beste elkarte bat. Hasierako esperientzia haiek Asanblada Nazionalean arreta erakarri zuten, eta elkarte berriak sustatzeko hiru milioi frankoko funtsa onartzea eragin zuen horrek. Horrela, Gidek eta Ristek aipatzen dutenez, Blancen iradokita hasi zen esperientziak ehun bat ekoizpen-elkarteren eta hainbat kontsumo-kooperatibaren arrastoa utzi zuen.

Mugimendu horrek guztiak, ordea, gutxi iraun zuen. Blanc bera, gobernu-ardurak utzi eta, Ingalaterran erbesteratu zen 1848ko langile-errebolta berriaren osteko errepresio-giroaren ondorioz. Gobernuan, Blancen aurkariak, tailer sozialen ideia desitxuratu eta «tailer nazional»en zabalkundeari ekin zioten. Baina, Blancen proposamenaren aldean, estatu-erakundeak baino ez ziren horiek, asistentzia-espirtuz eta diziplina ia militarren pean, langileen kategoriari muzin eginez, lanik gabeko langileei enplegua ziurtatzeko pentsatuak. Tailer sozialen ideiarekin sortu zen nahasmendua zela eta, Blancen planteamenduek ospea galdu zuten langile-sektoreen ar-

7. LOUIS BLANC

tean. Bigarren Errepublikari amaiera eman zion estatu-kolpeak, bestalde, aurretik eraman zituen Blancen eraginpean eratu ziren ekoizpen-langileen elkarte guztiak.

7.1. LOUIS BLANCEK EREDU KOOPERATIBOAREN SO-RRERARI EGINDAKO EKAR-PENA

Mladenatzen iritzia gure eginez, baieztatu dezakegu Louis Blancek, langile-masen artean eragin handiko politikaria eta ekintza-gizona izanik, ekarpen handia egin zuela langile-giroetan asoziazionismoaren programa eta, zehazkiago, ekoizpen-langileen elkartegintza sozializatzen. Frantziako tes-tinguruan, gainera, Fourierren eta Buchezen aldean, Blancek, ekoizpen-langileen elkarteen sustapenaren bidez, kooperatibismoaren garapenari egin zion ekarpen praktikoa nabarmendu behar da. Horixe bera da Gidek eta Ristek azpimarratzen dutena:

«Izaera errazeko erreforma-bide zehatza delako erakarri du arreta Louis Blancen planak. Hainbeste amets handi baina gauzatu ezinen ondoren, behingoz, joera guztientzat eskuragarria zen proiektua iritsi zen, erraz aplikatze-ko modukoa. Idealen mundutik errealitateen mundura igarotzeko behar hori, *laisser-faire* egoeratik nola edo hala ihes egin ahal izateko, behingoz, formula praktikoa bat asmatu izana (...) Horri esker azaltzen da bere arrakastaren zati handi bat».

7.1. Louis Blancen eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena

Horrenbestez, bidezkoa da Blancen izena kontuan hartzea lan elkartuko kooperatiben aitzindarien artean. Buchez-Blanc tandemaren bidez hasi ziren zehazten lan elkartuko kooperatiben ezaugarriak izango direnak. Ma-teori kasu eginez, Blancék –Buchezen antzera– *langileen elkarte* hitza erabiltzen baldin bazuen ere, nagusiki Frantzian oraindik *kooperatiba* nozioa errotu gabe zegoelako, ekoizleen elkarte horiek benetako kooperatibak ziren, oro har, Rochdaleko printzipio berdinetan oinarrituak. Borondate askean oinarrituriko elkartzea, funtzionamendu demokratikoa, kapitalaren interes finko eta mugatua, lan-ekarpenaren araberako ordainsaria, edo erreserba-funts banaezina, denak ala denak elkarte horien praktikaren ezaugarri argiak ziren.

Nolanahi ere, gainerako aitzindari asoziazionisten aldean, Blancen planteamenduan bereizgarriak diren ikuspegiak hauteman daitezke. Ñabardurak eta perspektiba berriak dakartza Blancék, eta horrek leku nabarmenean jartzen du doktrina kooperatiboaren garapenean. Azpimarragarriak dira lan elkartuko kooperatiben izaera duten ekoizleen elkarteen aldeko apustua eta, gainera, garaiko industria handiaren eremuan garatzeko egiten duen hautua. Baina, horrez gain, bereizgarria da elkartegintzaren garapenean zein gizarte-eraldaketaren norabidean estatuari aitortzen dion rola. Blancék onartu egiten du, zalantza izpirik gabe, estatuaren funtzio arautzailea eta sustatzailea. Horrela egiten du, ikusi ahal izan dugunez, tailer sozialen lehen faseetan estatuaren esku-hartzeari dagokionez; eta, antzera, estatuaren administrazio zuzena defendatzen du trenbideen, meatzaritzaren, bankuen edo aseguru enpresa-eremuetan. Horregatik, langile-klaseak botere politikoa eskuratzeko beharra zuela aldarrikatzen zuen; hori zela eta, hainbatek estatu-sozialismoaren lehen ordezkarien artean kokatzen dute Blanc. Baina baieztapen horrek ñabardurak behar ditu. Colek, adibidez, estatuari ekonomiaren plangintzan eta gizarte-zerbitzuen garapenean posizio nagusi bat aitortzerakoan, Blanc saint-simondarren ideiekin harremanetan ikusten du. Baina, era berean, haiengandik urrundurik ere ikusten du, haiei leporatzen baitzien, sozialismoaren izenean, estatua industriaz jabetu eta goitik beherako administrazio-hierarkia batez zuzentzeko nahia. Ildo horretan, Colen iritzian, Blanc hurbilago dago Fourierren asoziazionismoaren eta komunitate-bizitzaren ikuspegietatik. Esan genezake Blanc estatuak industria zuzendu behar duen ideien

7. LOUIS BLANC

aurka zegoela, baina langileen gidaritzapean egongo diren erakunde autonomoak ezartzen laguntzeko, estatuaren esku-hartzea defendatzen zuela. Fernández Riquelmek dioenez, Blancék ez zion estatuari uko egiten, eta ez zuen estatu-sozialismoaren alde egiten. Zehazki, «elkarteen estatua» proposatzen zuen. Bertan, ekoizpen-langileen kooperatibak lirateke sistema sozial eta ekonomikoaren oinarria, eta estatua kanpo-politika eta elkarteen koordinazio funtzioak bere gain hartuko lituzkeen entitate soila litzateke. Antzera ikusten du Paul Lambertek ere. Haren iritziz, Blancen planteamen-
duan estatuak jarduera ekonomikoen koordinatzaile rola besterik ez du, eta autonomia zabala aitortuko litzaike ekoizleen elkarteei.

Baina Blancen ikuspegian azpimarragarriena da, antolamendu autonomia eta demokratikoa kolokan jarri gabe, kooperatiben sustapenean estatuaren esku-hartzea aitortzea. Aurrerantzean, doktrina eta pentsamendu kooperatiboaren baitan, eztabaida-iturri oparoa izango da gai hori.

7.1. Louis Blancen eredu kooperatiboaren sorrerari egindako ekarpena



8

LABURBILDUZ



8. LABURBILDUZ

Kooperatibismoaren sustraiak arakatzeko ahalegina egin dugu liburuxka honetan eta aurretik argitaraturiko bestean. Aurrekoan, langileen eta herri-sektoreen elkartze-praktikak izan genituen hizpide; oraingoan, sozialista asoziazionisten ideiak eta ekinbide praktikoak izan ditugu aztergai. Rochdaleko esperientziaren aurreko mugimendu kooperatiboaren berri eman digu egin dugun ibilbideak. Kooperatibismoaren sorreraz ideia nagusi bat nabarmentzen da guztien artean. Ez aita sortzailerik, ez bat-bateko eraterik. Mladenatzi hartu diogu maileguan sintesia. Kooperatibismoa ez da pentsalari argi batek marrazturiko produktu teoriko baten emaitza. Haren sorrerak gehiago erantzuten dio ahalegin desberdinen bidez eratzen doan mailaz mailako prozesuari. XVIII. eta XIX. mendeetako langileen elkarleen praktikak eta sozialista asoziazionisten formulazioak uztartuz eraldatu da kooperatibismoaren gizarte- eta enpresa-eredua. Saiakera desberdinen irakaspenen sintesiaren emaitza da, maila handi batean, kooperatibismoa.

Kapitalismo industrialak langileen artean sortzen zuen estatus-galerari eta pobrezia-arriskuari langileek eta herri-sektoreek erantzun zioten, antolatuz eta elkarrekin sortuz. Elkarrekin horiek, ordea, kapitalaren logikaren mende ez dagoen ikuskerara etiko eta moral bat adierazten zuten xede alternatibo baten eramaileak ziren. Borondatezko elkartze askea, elkartasuna eta elkarrenganako laguntza, esfortzu propioa, bokazio demokratikoa, berdintasun-gogoia, kapitala pertsonen beharren zerbitzura ezartzeko asmoa, eta norberaren lanaren eta bizi-proiektuaren gaineko autonomia eta kontrola ziurtatuko duten formula kolektiboak topatzeko nahia dira, besteak beste, lehen liburuxkan aztertu moduan, langile-klaseen asoziazionismoaren aspirazioak eta balioak. Aspirazio eta balio horiek ardatz hartuta hurbiltzen dira elkarrekin antolatutako langileak sozialistek aurkezten zituzten ideia berrietara. Doktrina horiek bere egingo dituzte; ez, baina, haien xede eta balioen galbahetik iragazi gabe, eta praktika eta eztabaidaren bidez zentzu propioa eman gabe.

Horrek, dena den, ez du balio gabetzen eredu kooperatiboaren eraikuntzan sozialista asoziazionista ezberdinek egindako ekarpena. Aitzitik, ikuspegi praktikotik egindako ekarpenek, zein printzipioak eta oinarri ideologikoak finkatzeko egindako ekarpenek, soberan justifikatzen dute aztertu ditugun bost erreformistak kooperatiben aitzindari izendatzea.

Ekinbide praktikoan arreta jarritz, argia da sozialista asoziazionisten eragina. Sozialistek, Owenek zehazki, gizarteratzen dute kooperazioaren kontzeptua, ikuskera modernoaren zentzurik ez duen arren. Sozialista asoziazionistei esker, lankidetzaren nozioa, lehen aldiz, ordena sozial eta ekonomikoa eraldatzeko asmoarekin lotu zen. Horrek langile-mugimenduari ateak ireki zizkion kooperatiben sustapena emantzipazio bide gisa hartzeko. Bultzada horrek izaera kooperatiboko kontsumo- eta ekoizpen-elkarrean sustapen esanguratsua eragin zuen Britainia Handian eta Frantzia; langileen giroetan, bide batez, kooperatiben ereduaren baliagarritasuna zabaldu zen. Aro hartan, eta sozialista asoziazionisten eraginpean, hainbat kongresu kooperatibo gauzatu ziren, eta kooperatiben arteko aliantzaren nozioak esangura berezia bereganatu zuen. Ideal komuna eta xede partekatua duen «mugimendu kooperatiboa» aro hartan hasi zen gorpuzten.

Hasierako esperientzia haiek izan ziren printzipio eta arau kooperatiboak praktikan jartzeko lehen saiakerak. Modu ez-sistematikoan eta ahalegin sakabanatuetan bada ere, printzipioak asmatzen eta esperimendatzen hasi ziren elkarre horiek. Besteak beste, bitartekariak desagerrarazi eta ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena ezarri zuten; kapitala interes finko eta mugatuaren bidez ordaintzen hasi ziren; etekinen itzulera praktikatzeko zuten, egindako erosketen arabera kontsumo-elkarrean eta lan-ekarpenaren nolakotasunaren arabera ekoizleen elkarrean; soldatapeko langilea lan elkartuko kide bilakatzeko ateak ireki ziren; erreserba-funts banaezinak ezarri ziren; enpresa-ardurak demokratikoki hautatzen ziren; eta neutraltasun-printzipioa praktikan jarri zuten.

Bestalde, esperientzia horien porroten irakaspenak izango dira eredu kooperatiboaren hurrengo garapenaren oinarriak. Esperientzia horietako askok irizpide ideologiko zorrotzak erabiltzen zituzten elkarteko kideak onartzeko. Bazkide kopuru murriztaren ondorioz, elkarre ez zuten bideragarritasuna ziurtatzeko erosahalmen nahikorik garatzen. Gainera, gehienetan, bazkideen onura zehatzak lausotuak geratzen ziren ideal nagusiaren mesedetan: batzuetan, kapital-ekarpina ez saritzeko joera zegoen; besteetan, merkatuko prezioetan saltzen zen, eta soberakinak ez ziren bazkideen artean banatzen kapital kolektiboak ezartzea lehenesten zelako. Bazkideek abantaila zehatzak hautematea zailtzen zuen horrek

8. LABURBILDUZ

guztiak. Beste zenbait kasutan, elkarbizitzarako zailtasunak edo enpresa kolektiboak gidatzeko esperientziarik ezak eragin zuen esperientzia horien porrota. Frogaturik geratu zen ideal handi batekiko debozioa ez zela nahikoa halako enpresek behar dituzten antolaketa-gaitasunak ordezkatzeko.

Esperientzia horiek guztiak bilakatuko dira Rochdaleko aitzindarien lehengai. Irakaspen horien ondorioak haien estatutuetan ezarri zituzten, eta erabakigarriak izan ziren eredu kooperatiboaren bideragarritasunaren oinarriak finkatzeko.

Baina sozialista asoziazionisten ekarpena ez da ekinbide praktikoan agortzen. Kooperatibismoaren doktrina osatzen duten printzipio nagusietako asko pentsalari horien proposamenetan agertzen dira jada. Buchezek marrazturiko printzipioetan, zeinak Rochdalekoak baina hamar urte lehenago idatzitakoak baitira, sistema kooperatiboaren oinarritzko ardatzak zedarritzen dira. Autore eta pentsalari horiek ezarri zituzten, horrenbestez, kooperatibismoaren oinarri ideologiko funtsezkoak. Horixe da Paul Lambertek iritzia ere. Haren ustez, doktrina kooperatiboaren funtsezko ezaugarriak Rochdaleko esperientzia kooperatiboaren aurretikoak dira, eta lotura estua dago doktrina horren eta sozialista asoziazionisten pentsamenduaren artean. Mladenatzek ere sozialista asoziazionisten pentsamenduan identifikatzen ditu mugimendu kooperatiboari sistema ekonomikoaren izaera eta gizarte-ekintza bateratua osatzea bermatzen dioten oinarriak. Kooperatibismoaren teoriko horiek kooperatibismoak bere egingo dituen sozialista asoziazionisten lau ideia nagusi hauek azpimarratzen dituzte:

1. **Asoziazioaren ideia bera.** Indibidualismoaren eta lehiaren printzipio liberalen aurrean, eskubide eta behar berdinak dituzten pertsonen elkarkidetzak da, bizi-baliabideen gaineko lehia gainditu eta lankidetzan oinarrituriko ordena berri baten oinarria. Horrela, kooperatiba da, sakabanaturiko indarrak batuz eta interes komunak uztartuz, helburu partekatuan aurrera egiteko eratzen den enpresa kolektiboa.

2. **Elkarkidetasun librea edo lankidetzaren borondatezko izaera.** Kooperatibak interesdunen inizatiba propioaren ekimenez eratzen dira, borondatez atxikitzeko erabakien bidez. Hori, era berean, self help edo autolaguntzaren printzipioarekin ezkontzen da: kooperazioa, langile-klaseen emantzipazio-bidearen adierazpena izanik, langileen beren zeregina eta ardura da, estatuaren edo aberats filantropoen tutoretzarik onartu gabe.
3. **Enpresa, demokraziaren bidez funtzionatzen.** Sozialista asoziazionista guztiek indar berarekin partekatzen ez badute ere, demokrazia da eredu kooperatiboaren oinarritzko ezauzgarria. Kooperatibaren erabaki nagusietan eta arduradunen hautaketan gauzatzen da, nagusiki. Printzipio horrek pertsonen nagusitasuna ezartzen du kapitalaren gainean, garaiko langile-klaseen aspirazio sakon bati bide emanez.
4. **Zerbitzu-bokazioz, eta ez mozkin gosez, eratzen den enpresa.** Kapitalisten mozkin industrialia eta komertziala ezabatzea da kooperatiben indar eragilea. Kapitalaren ordainsari finko eta mugatua batetik, eta erosketen araberako edo lanaren ekarpenaren araberako irabazien itzulera bestetik, horiek dira bazkideen zerbitzu-izaera bermatzen duten mekanismo nagusiak. Erreserba-funts banaezina, ate irekien printzipioa eta langile berriak bazkidetzeko erabakia dira kooperatiben interes orokorraren bokazioaren eta gizarte-eraldaketaren konpromisoaren bermeak.

XIX. mendearen lehen hamarkada horietan finkatzen dira, beraz, kooperatibismoaren oinarri ideologikoak eta horiek printzipio eta arau zehatzetan gauzatzeko bideak. Sozialista asoziazionisten ekarpenaz arduratu den liburuxka honek Paul Lambertek azken aipamen bat behar du gaia borobiltzeko. Izan ere, kooperatibismoaren aditu handi honek gogora ekartzen digunez, sozialista asoziazionista hauek pentsamendu eta doktrina kooperatiboaren eztabaida nagusiak aurreratzen dituzte:

8. LABURBILDUZ

«Fourierrek soldatapeko lanarekin amaitzeko modua proposatu du, langileak bazkide bihurtuz. Baina elkarte horrek –Saint-Simonek, Buchezek eta Blancek pentsaturiko moduan– pertsonak ekoizle-izaeraren arabera multzokatuko ditu, ala, Kingen eta Derrionen tesien arabera, kontsumitzaile-izaeraren arabera elkartuko ditu?

Kooperazioaren borondatezko izaerak esan nahi du kooperatibek langileen berezko ahaleginen emaitza izan behar dutela, ala –Fourierrek eta Owenek pentsatzen duten moduan– filantropoen babesa jaso dezakete hasierako urratsetan, edota baita estatuaren laguntza ere, Buchezek eta Blancek ikusi bezala? Era orokorragoan hitz eginez, King doktoreak defendatu moduan, kooperatiben hedapena izango da lehia nagusitasuna erakustearen emaitza, ala estatuaren bultzadaren bidez etorriko da, nazionalizazioak ere gauzatuz, Louis Blancek proposatzen zuen bezala?».

The background is a solid light pink color. Overlaid on this are numerous thin, white, curved lines that originate from the top left and fan out towards the right, creating a sense of motion and depth. The lines are more densely packed on the right side and become more widely spaced towards the left.

BIBLIO- GRAFIA

Álvarez Layna, J. R. (2007). Una defensa de Robert Owen- II. *A Parte Rei: Revista de Filosofía*, 55.

Álvarez Layna, J. R. (2008). Antecedentes inmediatos y algunos "socialistas utópicos" II. *A Parte Rei: Revista de Filosofía*, 56.

Álvarez Layna, J. R. (2011). Religiones y democracia: Robert Owen y el owenismo en la década de los años treinta del siglo diecinueve. *El Catoblepas: Revista Crítica Del Presente*, 111, 13.

Álvarez Layna, J. R. (2013). Robert Owen y la joven República de Méjico. *El Catoblepas. Revista Crítica Del Presente*, 138, 10.

Álvarez Layna, J. R. (2014). Robert Owen: Presentación, evolución y apuntes de traducción e interpretación. *Factotum. Revista de Filosofía*, 12, 63–73.

Álvarez Layna, J. R., Maidana, A., & Vélez, I. (2013). Owenismo, arquitectura, urbanismo y paleo-sionismo. *El Catoblepas. Revista Crítica Del Presente*, 133, 10.

Barros, J. D. (2016). Charles Fourier, os falanstérios e a crítica à civilização industrial. *RIPS: Revista de Investigações Políticas y Sociológicas*, 15(2).

Bravo Gala, P. (1998). *Socialismo pre-marxista*. Madrid: Tecnos.

Buchez, P. (1831/1961). Anexo 1. El artículo de Buchez en el que fija las

reglas de las cooperativas obreras de producción. In P. Lambert, *La doctrina cooperativa*. Buenos Aires: Intercoop.

Bunge, M. (2007). Teoría y práctica del cooperativismo: de Louis Blanc a la Lega y Mondragón. *Revista Iberoamericana de Autogestión y Acción Comunal*, 50, 13-16.

Cole, G. D. H. (1964). *Historia del pensamiento socialista I. Los precursores (1789-1850)*. México D.F.: Fondo de Cultura Económica.

Davidovic, G. (1976). *Hacia un mundo cooperativo*. Zaragoza: Centro Nacional de Educación Cooperativa.

Díaz, H. (2005). Louis Blanc: el socialismo en beneficio de los trabajadores. Recuperado desde https://www.academia.edu/19117606/Louis_Blanc_el_socialismo_en_beneficio_de_los_trabajadores-tik_hartua_2019eko_Maiatzaren_4ean.

Fernández Riquelme, S. (2009). Sobre los orígenes de la Democracia social Henri de Saint-Simon y Louis Blanc, corporativismo y política social en el siglo XIX. *Anales de Historia Contemporánea*, 25, 389–406.

Garau Rolandi, M. (2015). *Entre la utopía y la supervivencia: El desarrollo y la diversidad de las cooperativas de producción y trabajo en la Catalunya urbana e industrial (1864-1936)* [Tesis de doctorado, Universidad de Barcelona].

Gide, C., & Rist, C. (1973). *Historia de las doctrinas económicas desde los fisiócratas hasta nuestros días*. Madrid: Instituto editorial Reus.

González Amuchástegui, J. (1989). *Louis Blanc y los orígenes del socialismo democrático*. Madrid: Centro de investigaciones sociológicas.

González Amuchástegui, J. (1993). Louis Blanc. In J. F. Tezanos (Ed.), *Teoría política del socialismo* (pp. 45–69). Madrid: Editorial Sistema.

James, É. (1969). *Historia del pensamiento económico*. Aguilar.

Kaplan, A., & Drimer, B. (1981). *Las cooperativas. Fundamentos-Historia-Doctrina*. Buenos Aires: Intercoop.

Kumar, K. (1992). El pensamiento utópico y la práctica comunitaria Robert Owen y las comunidades owenianas. *Política y Sociedad*, 11, 123–144.

Lambert, P. (1961). *La doctrina cooperativa*. Buenos Aires: Intercoop.

Lanfranco, M. F. (2013). La teoría sobre la naturaleza del hombre y la sociedad en el pensamiento de Robert Owen como base del socialismo británico (1813-1816). *Historia Crítica*, 50, 231-236.

Lavergne, B. (1952). *La revolución cooperativa o el socialismo de occidente*. México: Universidad Autónoma de México.

Lévesque, B., & Côté, D. (1994). La renovación de las legislaciones nacionales de la cooperación en el momento de la mundialización: la búsqueda de una metodología. In J. L. Monzón & A. Zevi (Eds.), *Cooperativas, mercado, principios cooperativos* (pp. 9–24). CIRIEC-España.

López Castellano, F. (2003). Una sociedad de cambio y no de beneficencia. El asociacionismo en la España liberal (1808-1936). *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 44, 199–228.

Lucía Cervio, A. (2010). Cuerpos extraños - Cuerpos apasionados. Una aproximación a la configuración socioespacial en el contexto de la Venecia Shakespeariana y del Falansterio de Charles Fourier. *Revista Austral de Ciencias Sociales*, 18, 59–81.

Martínez Charterina, A. (2016). *La cooperativa y su identidad*. Madrid: Dykinson, S.L.

Memba, J. (2017). Charles Fourier. Filántropo, hedonista y utópico. *La Aventura de La Historia*, 228, 36–39.

Mladenatz, G. (1969). *Historia de las doctrinas cooperativas*. Buenos Aires: Intercoop.

Monzón Campos, J. L. (1989). *Las cooperativas de trabajo asociado en la literatura económica y en los hechos*. Madrid: Ministerio de trabajo y seguridad social.

Olaya Morales, F. (1983). *De la Revolución Industrial al Cooperativismo*. Madrid: Queimada.

Orjuela, F. (1994). El trabajo atrayente y otros atractivos de Charles Fourier. *Revista Colombiana de Psicología*, 3, 143–147.

Ortega, I. (2021). *La contribución de los fundadores del cooperativismo de Mondragón al pensamiento cooperativo*. [Tesis de doctorado, Mondragon Unibertsitatea].

Pro, J. (2015). Mujeres en un Estado ideal la utopía romántica del fourierismo y la historia de las emociones. *Rubrica Contemporánea*, 4(7), 27–46.

Ruggeri, A. (2020). Autogestión y revolución. De las primeras cooperativas a Petrogrado y Barcelona. Barcelona: Descontrol.

Santos Redondo, L. M. (2003). Robert Owen, empresario. *Revista Empresa y Humanismo*, 6(1), 179–198.

Santos Redondo, M. (2008). Robert Owen, pionero del management. <http://www.ucm.es/BUCM/cee/doc/00-27/0027.htm> -tik hartua 2019eko Irailaren 17an.

Sevilla, D. (1986). Charles Fourier y la educación de su época crítica y propuestas. *Historia de La Educación: Revista Interuniversitaria*, 5, 203–214.

Touchard, J. (1975). *Historia de las ideas políticas*. Madrid: Tecnos.

Watkins, W. P. (1977). *El movimiento cooperativo internacional*. Buenos Aires: Intercoop.

Esku artean duzun liburuxka honekin, kooperatibismoaren sustraian sakontzeko aukera duzu. Aurrekoari segida ematera datorren argitalpena da. Orduan, XVIII. eta XIX. mendeetan, industria-kapitalismoari aurre eginez, langile eta herri-sektoreen inguruneetan eraldutza ziren antolaketa-praktikak eta elkartegintza dinamikak aztertu bagenituen, oraingoan sozialista asoziazionista deiturikoen pentsamendua eta ekinbideak izango ditugu aztergai. Izan ere, bi horiek dira, Rochdaleko kooperatiba-esperientziaren mugariaren aurretik, kooperatibismoaren sorreraren iturri nagusiak.

Idazki honetan, hortaz, sozialista asoziazionistek eredu kooperatiboaren eraikuntzan egin zuten ekarpena, teorikoa eta praktikoa, aztertuko dugu. Britainia Handiko Robert Owen eta William King doktorea eta Frantziako Charles Fourier, Philippe Buchez eta Louis Blanc autoreak aztertuko ditugu. Liberalismoaren erregimen indibidualista eta lehiakorra gainditu eta elkartasunean oinarrituriko gizarte-eredua eraikitzeko, elkarkidetzan oinarrituriko elkarrekin sustatu zituzten. Batzuetan funtzionamendu-arau eta antolaketaren eredu berritzaileak asmatuz, eta, besteetan, elkartegintza-eredu berri horien esperimenduzko praktikak garatuz. Ez zuten kooperatiba hitza erabiltzen –berriagoa baita–, baina zalantzarik ez dago sustatu zituzten kontsumo- edo ekoizpen-elkarrekin egungo kooperatiben aurrekari zuzenak direla. Sozialista asoziazionista horien proposamenetan, hortaz, kooperatibismoaren oinarri ideologiko hainbaten iturriak daude. Gerora Rochdaleko kooperatiba-esperientziak eredu bilakatuko dituen printzipio eta arau asko ere garai honetakoak dira. Horiek guztiak arakatuko ditugu liburuxka honetan.



Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia